

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko uztailearen 9a / 592. zenbakia

## UDAKO GAUAK

Zine eta musika emanaldiak uztailean eta abuztuan



OSINTXU: ZUBI BERRIKO LANAK, HASTEAR/5 • ELKARRIZKETA: RACHEL OLABARRIA/9

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 9**  
ESTELLA. Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63
- ZAPATUA, 10**  
MOZOS. Iparragirre 2 ..... 943 76 12 15
- DOMEKA, 11**  
MOZOS. Iparragirre 2 ..... 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 12**  
CAMACHO. Oxirondo 4 ..... 943 76 11 74
- MARTITZENA, 13**  
ZABALA. Barrenkalea 25 ..... 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 14**  
GUALLAR. San Antonio 5 ..... 943 76 11 05
- EGUENA, 15**  
ESTELLA. Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) ..... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46
- Ertzaintza ..... 943 53 47 20
- Osasun etxea ..... 943 76 24 40
- Asepeyo ..... 943 76 16 43
- Pakea ..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23
- Odol emaleak ..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak ..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32
- Igerilekuak ..... 943 76 20 51
- Kultura etxea ..... 943 77 91 58
- Liburutegia ..... 943 77 91 62
- Kiroldegia ..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia ..... 943 76 14 92
- Erregistroa ..... 943 76 13 15
- Jardun ..... 943 76 36 61
- Idolaz ..... 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea. Bergara ..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea ..... 943 76 26 85
- Bedelkar ..... 943 76 04 68
- Akulu AEK ..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |  |   |
|--|---|
| <b>San Pedro</b><br>Domekak:<br>09:30.<br>Zapatuak eta<br>lanegunak:<br>19:00. | <b>Labegaraieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorentzo</b><br>Zapatuak: 20:00.<br><b>Angiozar</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>Moja Zaharrak</b><br>Lanegunak: 08:00.<br><b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30. |
| <b>Santa Marina</b><br>Zapatuak:<br>19:00.<br>Domekak:<br>13:00.               | <b>Antzuola</b><br>Domekak:<br>10:00, 11:30.<br>Zapatuak eta<br>lanegunak: 19:30.<br><b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.<br><b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.<br>Domekak: 12:00.                                |
| <b>Sierbak</b><br>Lanegunak: 19:30   | <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:00.   |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 11:00.  | <b>Ubera</b><br>Domekak: 10:30.   |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.   | <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.  |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean.

**OHARRAK**

**ODOL ATERATZEA HILAREN 21EAN**  
Bergarako Odol Emaileen Elkartek aditzera eman duenez, uztaileko azken odol ateratzea hilaren 21ean egingo da, Seminarioan, 18:30ean hasita.

**ARANTZAZURA ERROMESALDIA**  
Ohikoa denez, uztaillaren 25ean Arantzazura erromesaldia izango da. Bergaratik 09:30ean irtengo dira autobusak. Egurdiko mezaren ostean bazkaria egongo da Arantzazuko Hospederian. Arratsaldean, autobusak aterako dira Loiolara joateko. Izenematea Agirrebeñan (San Antonion), Zerkauzin (Ozaetan) edo Zatoia dendan (Barrenkalean).

**GAZTETXOENDAKO MARGOLAN IKASTAROK**  
Beart elkartek gaztetxoendako margolan ikastaroa antolatu du uztaileko. Eskolak aste barruan izango dira, 10:00etatik 12:00etara. Argibideak, honako zerbakiotan: 653 71 53 82 (Mayra), 665 70 31 75 (Oihana) edo 635 71 32 69 (Maite).

**JARDUNEN AGENDA**

**TRIKITI ETA BERTSO ESKOLA**  
Trikiti eta bertso eskolaren datorren ikasturteari begira izenematea zabalik dago Jardunen. Argibideak 943 76 08 19 zerbakian.

**BEGIRALE LAN POLTSA**  
9-16 urte bitarteko gaztetxoekin lan egiteko begiraleen lan poltsa osatu nahi du Jardunek. Argibideak: 943 76 08 19.

**KANTU LIBURUXKAK**  
Euskal kantuen liburuxkak salgai daude Pol-Polen, Kortazarren eta Jarduneko bulegoan, Errotalden, bi euroren truke.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**


**Ikurrinaren 100. urtemuga ospatzeko ekitaldia**

Ikurrinaren 100. urtemuga ospatu zuten 1994ko uztaillaren 14an. EAJ eta EA alderdiek bat egin zuten HBk udalbatzan aurkeztutako moziorekin. Euskal Herriko nazio eskubidearen ikur bezala, Ikurrina UNEDeko balkoian jartzea eskatu zuen HBk. 200 bat herritar elkartu ziren plazan.



**BERTAKO BERTAK / Juan Martin Elexpuru**

*"Apixa"*



Kabia  
— Zozuak asita dare apixagiñan.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Domeka, 4	<b>9 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Domeka, 4	<b>30 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>4,7 L</b>


	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 30	24 °C	13 °C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 1	20 °C	12 °C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 2	22 °C	12 °C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 3	26 °C	10 °C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 4	30 °C	9 °C	1,4 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 5	19 °C	17 °C	0,9 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 6	24 °C	16 °C	2,4 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**GOGORATZEKO**

**JAIK SAN KRISTOBALAN**

Bihar, zapatua, San Kristobal eguna ospatuko dute. Ohiturari jarraituz, autoak bedeinkatzeko aukera izango da. Egurdiko hamabietan meza izango da eta jarraian bedeinkazioa egingo dute. Domekan ere autoak bedeinkatzeko aukera izango da, ordu berean. Horrez gain, trikitilariak eta dantzariak izango dira bihar eta etzi Aldai Egia auzoan. Zapatu gauean Gardoki taldeak alaitutako erromeria egongo da, 23:00etan hasita.



**BERGARA**  
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer moduz udalekuetan? Zer gustatzen zaizu gehien?



**ANDONI MOÑUX**  
4 urte



**OLATZ MURUAMENDIARAZ**  
4 urte



**IÑIGO AZKARATE**  
5 urte



**AITOR ZURRO**  
6 urte



**AINHOA MURILLO**  
6 urte



**NEREA JULIAN**  
5 urte

Bai, oso gustura ibiltzen gara. Igeri egitera joaten garenean pasatzen dut ondoan. Lagunekin jolasean primeran pasatzen dut. Gaur ere San Fermin eguna ospatzen ederto pasatu dut.

Aurten lehen aldiz etorri naiz udalekuetara eta gustura nabil, lagunartean. San Fermin egunerako zuri-gorri jantzita etorri gara denok eta oso ondo pasatu dugu.

Lehenengo urtean ere etorri nintzen eta pozik nabil. Jolas mordoa egiteko aukera dago eta lagunekin primeran pasatzen dut. Igeri egitea gustatzen zait, igerilekuan batez ere.

Lagun asko dauzkat udalekuetan eta futboleko jokatzea atsegin dut gehien. Xabi Alonso da nire jokalaria favorita. Real Madrilera joango den? Ez dakit, ea Realean jarraitzen duen...

Lehenengo urtean ere etorri nintzen udalekuetara eta oso ondo pasatzen dut lagunekin. Askotariko jolasak egiteko aukera daukagu eta giro onean dagoenean irteerak egiten ditugu.

Ez dakit. Nik ondo pasatzen dut lagunekin. Adibidez, igerilekura joaten garenean oso gustura ibiltzen naiz, hondartzan baino gusturago. Lagun berriak ere egin ditut.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK UR KOLEKTOREKO LANAK** Ur kolektoreko lanak direla eta, herritar batek deitu zigun martitzenean, protesta egiteko. Lanak eragozpen ugari sortzen ari direla adierazi zigun telefonoz. Oraintsu, Zubietako kalea itxi dute autoendako, eta horrez gain, herriko irteerak sarreteran, aipatutako lanen eraginez, egunero auto ilara luzeak sortzen direla salatzen nahi zuen. /E.M.

## ETABARRUAN...

ASTEKO /5

KIROLA /8

KULTURA /12

### Zubi berria Osintxun

Osintxun zubi berria egiteko lanak hastear daude. Gerondo parean eraikiko dute zubia.

### Futbol taldea, martxan

Bergara KEko preferente mailako taldea astelero hasiko da hurrengo denboraldia prestatzen.

### 'Udako gauak'

Udako gauak programaren barruan musika eta zine emanaldiak uztailaren eta abuztuaren.

## ASTEKO DATUA

# 365

### NESKA-MUTIKO ARI DIRA UDALEKUEAN

Xipizaro ludotekak antolatutako udalekuetan 365 neska-mutikok dihardute aurten. Eskolak uztailaren 1ean hasi zituzten eta hilaren 30ean bukatuko dira. Eguaztenean San Fermin ospatu zuten.

## BESTEKE SANA

**“Zergatik lotzen duten txirrindularitza doping kontuekin? Batez ere, kirol gogorra delako, iraupeneko. Gehien kontrolatuta dagoena ere bada. Gauzak gero eta estuago jarrita daude, batzuek beste batzuen pare jartzeko zerbait hartzen dute. Gorka Gonzalezen kasuan akatsa taldeko medikuarena izan dela uste dut”**

**MIKEL LARRAÑAGA / Lokatzako presidentea**  
'Asteleheneko Goienkaria' / 02-07-5

**“Kontrol gehien txirrindularitzan egiten direlako eta bestetik, dopinga egon badagoelako. Beste kirol batzuetan ere badago, noski. NBAN, esaterako, gauza batzuk hartzea onartuta dago. Hori ez zait bidezkoa iruditzen; edo kirol guztietan debekatu edo guztietan onartu beharko lukete”**

**JOSEBA LEZETA / Kazetaria**  
'Asteleheneko Goienkaria' / 02-07-5

## BERAIEK DIÑO / Iñigo Iñurrategi



### Diru falta?

**N**ire egoera eta beste hainbatena, seguruenik zurea ere bai, antzerakoa izango da diruari dagokionez: ez daukat premia larrikerik, ez zait ezer falta, baina (eta batez ere etxea erosteko mailegua ordaintzen ibiliz gero) diru pixka bat aurreratzeko aukera handirik ez daukagu. Eta hala ere konpontzen gara gure eguneroko beharrei aurre egiteko, gustuko gauzatxotan gastatu, bidaiatxoren bat egin... gure gustuko aukerak egiteko. Gehienok kezatzeko arrazoiz gutxi. Bakoitzak dauzkagun baliabideen arabera gure aukerak egiten ditugu.

Eta diru publikoarekin berdina gertatzen da. Inoiz baten bati entzun diot gaur eguneko ez dagoela ezkerria eta eskumaren arteko ezberdintasunik (politikari dagokionez). Ez dakit ezkerrez edo eskumaz erabiltzearen kontu bat den, baina garbi daukat dauzkagun baliabideak baterekin edo bestearekin erabiltzeak alde

ederra dakarrela.

Adibideak jartzea ez da zaila: gobernuak ez omen du diru nahikorik gizarte larrialdietarako laguntzetarako, gerra garaiko kaltetuak konpentsatzeko, etorkintzako harrera plan integral bat martxan jartzeko, 0-2 urte bitarteko ziklo

publikoa eskaintzeko, funtzio publiko guztia euskalduntzeko, ikerkuntza eta garapenean puntako herrialdeen pare inbertitzeko, etxebizitza izateko eskubide unibertsala bermatzeko, gure adinekoentzako zerbitzu duin eta eskuragarriak bermatzeko, puntako unibertsitate publiko euskalduna bultzatzeko, eta abar.

Eta aipatu nahi ez ditudan azpiegitura erraldoietarako, berriz, dirua ez da arazo: Brusela edo Madriletik osok ez baletor ere guk jarriko genituzke milaka milioiak.

Ba horixe, aukera kontua dela, ezkerrez edo eskumaz gastatzea. Diru falta ez da aitzakia.

**“Aipatu nahi ez ditudan azpiegitura erraldoietarako, berriz, dirua ez da arazo”**

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Aintzane Irizar  
Usua Agirre  
Irati Agirreazaldegui  
Jon Berezibar  
**MAKETAZIOA**  
Maitena Arana

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

**LEGE-GORDAILUA**  
55-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauetako laguntza izan du:

**Goiena**  
Komunikazio Zeharritza



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

**HEZKUNTZA/** Giro euskaldunean gaztetxoak ondo pasatzea da udalekuen helburu nagusia; Xipizarok 10. urtez antolatzen ditu aurten

# Xipizaro ludotekaren udalekuetan 365 neska-mutikok jardungo dute uztailean

EDU MENDIBIL

Joan den eguenean, hilaren 1ean, zabaldu zituzten Xipizaroren udalekuak. Aurten 2-14 urte bitarteko 365 neska-mutiko ari dira eta uztailearen 30era arte izango dituzte eskolak. Eguaztenean kalera atera ziren, San Fermin eguna ospatzera.

Xipizaro ludotekak 10. urtez antolatu ditu udalekuak aurten. Esan bezala, 365 neska-mutikok dihardute. Horietatik 28 ume 2 urtekoak dira. Gaztetxoekin 36 begirale eta lau koordinatzaile ari dira lanean. Ainhoa Arbelaitz dugu Xipizaroko arduraduna. Bere esanetan, umeak euskaraz ondo pasatzea da udalekuen helburu nagusia: "Oporretan diren neska-mutikoei, giro euskaldunean, ondo pasatzeko aukera eskaini nahi diegu, naturarekin harremanean ahal dela. Hori dela eta, eguraldia ona denean, eskolatik kanpoko egiten ditugu jarduerak: ur jolasak igerilekuan, Gorla edo San Martzialera irteera, jolas parkera..."

## SAN FERMIN EGUNA

Zalantzarik gabe, gurasoei ere laguntza handia eskaintzen diete udalekuek. Uztailearen 1ean hasi eta hilaren 30era arte iraungo dute eskolek. Martinez de Iraia ikastetxean 3-6 urte bitarteko neska-mutikoak daude eta San



Azken urteotan ohikoa denez, udalekuetako gaztetxoek San Fermin eguna ospatu zuten eguaztenean, San Martin plazan.

Martin eskolan, berriz, LH lehen mailatik DBH2ra bitartekoak. 2-14 urte artekoak hiru orduz izaten dituzte eskolak, 10:00etatik

13:00etara hain zuzen. Bi urtekoak, berriz, ludotekan egoten dira, Seminarioan, 10:30etik 12:30era.

Martitzenean, uztailearen 1ean hasi ziren eta uztailearen 30era arte iraungo dute eskolek. "Hasi berri gara, baina ea egu-

raldiarekin zortea dugun umeekin kanpora irteerak egin ahal izateko," diosku Ainhoa, Xipizarako arduradunak.

## EHEk hizkuntza eskubideen aldeko kanpaldia egingo du aste bukaeran

E.M.

Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatutako kanpaldia izango da aste bukaeran Bergaran. EHEko kideek astelehenean eman zuten aste bukaerako ekitaldien berri, prentsa aurrean. Irati Pagoaga EHEko kideak kanpaldiaren zergatia azaldu zuen: "Euskara bertako hizkuntza izan arren, euskara erabiltzeko oztopoak besterik ez dugu aurkitzen euskal herritarrok. Funtzio publiko gehienek gaztelera erabiltzera behartzen gaituzte, gure hizkuntza eskubideak sistematikoki urratzen dituztelarik. Hori dela, hizkuntza eskubideen aldeko kanpaldia egitea erabaki dugu".

### HAINBAT EKITALDI ASTE BUKAERAN

EHEko kideek biziki kritikatu zuten epaitegietan euskarak bizi duen egoera: "Justizia administrazioa euskalduntzeko urratsak emateko beharrezkoa da".



Argazkian, EHEko kideak astelehenean emandako prentsa aurrekoan.

Aste bukaerako ekitaldiei dagokienez, gaur, egubakoitza, kanpaldiari hasiera emango zaio Usondo parkean, 19:00etan, eta jarraian kalejira izango da. Zapatuan, berriz, auto karabana aterako da frontoitik 10:00etan eta

13:00etan manifestazioa egingo da. San Marin plazan egingo den bazkariaren ostean, jolasak izango dira, 17:00etan hasita. Bestalde, euskararen iragana eta orainaren gaineko erakusketa ikusgai dago egunotan kultura etxean.

## LABUR

### San Joxepe elkartekoek kurtso bukaerako irteera egingo dute uztailearen 22an

San Joxepe elkarteak kurtso bukaerako irteera iragarri du uztailearen 22rako. Covarrubias, Santo Domingo de Silos eta Yeclako ikustera joango dira herriko erretiratuak. Irteera 08:00etan egingo dute autobus geltokitik eta itzulera, berriz, iluntze aldera. Antolatzaileek dei egiten diete San Joxepeko bazkideei irteeran parte hartzeko. Izena emateko epea uztailearen 13ra arte dago zabalik. Argibideak 943 76 30 09 telefonoan.

### Txalaparta ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak, uztailearen 19tik 23ra bitartean

Txalaparta ikastaroa izango da uztailearen 19tik 23ra bitartean. Eskolak Arrizuriagan izango dira, 18:30etik 20:00etara hain zuzen ere. Ikastarorako izena emateak 6 euro balio du Jarduneko bazkideendako eta 8 euro gainerakoendako. Argibideak Jardunen edo 943 76 36 61 eta 943 76 08 19 telefono zenbakietan.

### Aritzeta abesbatzak egingo dako zozketan 3.282 izan da saritutako zenbakia

Txartelaren jabeak Luis Laskurain bergarar margolariak egingo dako koadroa eskuratu du. Irabazleak hilabeteko epea izango du saria jasotzeko. Irabazlea agertzen ez bada, 2.695 izango da ordezkoko zenbakia. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie zozketan parte hartu duten guztiei.

**HIRIGINTZA/** Osintxuko auzotarrak aspalditik dabilta zubi berria aldarrikatzen

# Osintxuko zubia berria egiteko lanak, hastear


EDU MENDIBIL

Datorren astean hastekoak dira Osintxuko zubi berria egiteko lanak. Soraluce kooperatibak eta Udalak bere garaian sinatutako hitzarmenaren arabera, Soraluce egingo da kargu proiektuarekin. Lanek milioi bat euro inguruko aurrekontua daukate.

Eguaztenean Osintxuko auzotarrak bertan behera laga zuten zubia eraikitzearen atzeratzea zela-eta, deitutako protesta ekitaldia. Luis Mari Alberdi Osintxuko auzo alkatearen arabera, eguaztenean bertan agindu zieten zubi berria egiteko lanak astelehenean, hilaren 12an, hastekoak zirela.

Osintxuko auzotarrak aspalditik eskatu dute zubia berria egitea, gaur egun tona askotako kamioak pasatzen direlako zubi zaharretik. Hain zuzen ere, orain dela urtebete ere protesta ekitaldia egin zuten auzotarrak, lanak hasten ez zirelako.

Bergarako Udalak eta Soraluce enpresak 2002ko ekainean sinatu zuten hitzarmena. Enpresa handitzearen truke, Soraluce bere gain hartuko luke zubi berria eraikitzeke lanak. Kontuak kontu, aipatutako proiektuak atzerapen ugari izan ditu. Soraluce enpresako iturrien arabera, enpresa ez da atzerapenaren erruduna. Erakunde ezberdinen aldetik beharrezko baime-



Zubi berria Soraluce eta Gerondo artean egingo da, Osintxun.

nak ez dira etorri eta hori dela eta proiektua atzeratzen joan da behin eta berriz.

### 35 METROKO ZUBIA

Esandako moduan, astelehenean hasiko dira zubi berria egiteko lanak. Proiektuak milioi bat

euro inguruko aurrekontua dauka eta lanek, hasiera baten, bost hilabete iraungo dute.

Altuna y Uria enpresak burutuko ditu zubi berriko lanak. Zubi berria Gerondo parean eraikiko dute eta 35 metroko luzera izango du.

# Primerako giroa San Martzialen domekan

ERREDAKZIOA

Herritarrek ez zuten hutsik egin San Martzialgo erromeriarekin eta giro ezin hobean igaro zuten domekako jaia. Goizean goizetik igo zen jendea San Martzialera eta eguraldia lagun, hamarretakoa, dantzak, bertsoak eta bestelako ekitaldiekin gozatzeko aukera izan zuten. Eguerdietan jende ugari elkartu zen ermita eta kantina ondoan, jai giroan.

Bazkalostean, herri jolasek ere ikusmina piztu zuten. Sokatiran, emakumezkoetan, Tira Andrak taldeak irabazi zuen eta gizonei dagokienez, Kabestroak izan ziren txapeldun. Txinga errotean, berriz, Virginia argentinarra nagusitu zen, 6 plaza, 19 metro eta 5 cm-ko markarekin. Gizonezkoetan, David Martinezek irabazi zuen, 5 plaza, 2 metro


eta 40 cm-ko markarekin. Mutilen txinga bakoitzak 50 kg-ko pisua du eta neskenak, berriz, 25 kg. Ohikoa denez, iluntzean, dantza ostan, jaitsierari ekin zion jendeak.

### FIDANTZA, GAUR ARTE

Bestalde, gaur, egubakoitza, azken eguna izango da mahaiak alokatu zituztenek fidantza berreskuratzeko. Udaleko Kultura Zerbitzuko iturrien arabera, aurten aurreko urteetan baino askoz ere material gutxiago desagertu da. Fidantza ordaindu behar izateak zerikusia izango zuen. Hala ere, hainbat herritar kezu ziren domekan Udalak agindutako orduan (19:00etatik 21:00etara) mahaiak bueltatu behar zirelako eta hainbatek ez zutelako afarirako mahai era-biltzerik izan.



Udalak 231 mahai alokatu zituen domekarako.



## Abiadura handiko mekanizazio erakustaldia Miguel Altunan

Miguel Altuna institutuak bailarako tekniko eta enpresei zuzenduriko abiadura handiko mekanizazio erakustaldia egin du. Kondia HM 1060 Fagor 8070M kontrolerak ekipatutako makinarekin, hainbat ariketa burutu zituzten. Moldearen esparruan erabiltzen da batik bat. Hurrengo ikasturtean abiadura handiko mekanizazio molde eta matrizeetan erakutsiko da Miguel Altunan.

## LABUR

### San Martinetako danborradan barrika joleen taldea osatzeko izena ematea zabalik dago

Udaleko kultura zerbitzua hasi da dagoeneko San Martin jaietako egitaraua zehazten. Nobedade gisa, barrika joleen talde bat osatuko da aurten helduen danborradan. Barrika joleen taldean parte hartzeko interesa dutenek kultura etxean eman dezakete izena, uztailearen 14ra arte, 09:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Argibideak 943 77 91 59 telefonoan.

### Atzegiko Txolarte aisiai taldeak begiraleak behar ditu datorren ikasturteari begira

Adimen urritasuna dutenekin lan egiten duen Txolarte aisiai elkarteak begiraleak behar ditu datorren ikasturtearako. Aste bukaeran 50 bat lagun elkartzen dira Txolartek Martokan duen lokalean. Laguntza emateko interesa dutenek 943 42 39 42 telefonora (Aitor Rodriguez) deitu edota [ocio@atzegei.org](mailto:ocio@atzegei.org) helbide elektronikora idatzi dezakete.

### Mekolaldeko Hondakin Uren Araztegia eraikitzeke proiektua onartu berri dute

Bergarako Hondakin Uren Araztegia eraikitzeke proiektua onartu berri du Diputatuen Kontseiluak. Mekolalde inguruan araztegia eraikitzeke lanak Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzari dagozkio eta bertan Bergara, Antzuola eta Elgetako hondakin urak tratatuko dira. Bergarako Udalak eskatuta, araztegi iristeko zubi bat eraikiko dute.

# SHOTOKAN KARATE-DO

Orain dela 8 urte 10 ikasle gaur egun ia 100



Begarako Shotokan Karate-Dok taldeko zuzendaritzaren izenean,  
**ZORIONIK BEROENAK**

ikasle guztiei aurtengo emaitza bikainengatik.  
Irailean ikusiko dugu berriz ere elkar!



MINGAINARITIRAKA



Daniel Morales

ONDA SUPERMARKATUKOA

Lau urte daramatza Danielek Aretxabaletan bizi izaten; emaztearekin eta semearekin etorri zen Argentinatik hona. Iazko abenduan supermerkatua jarri zuten Matxiategin, herrian dauden Onda supermerkatuetako bat, hain zuzen ere.

Zelatan argentinarrak bat Bergaran?

Bergaran dihardut lanean, baina Aretxabaletan bizi naiz. Orain dela lau urte etorri ginen hona bizi izatera. Nire koinatua bizi zen hemen; hura bisitatzera etorri ginen eta bertan geratu ginen. Hortaz, gustatu zitzaizuen.

Bai, bai, asko gustatzen zaigu Euskal Herria.

Euskaldunek zela hartu zaituzte?

Oso ondo; gainera, nik uste dut argentinarrak eta euskaldunok badugula zerbaitekin komunean.

Supermerkatua jarri duzue poligonoan. Zer moduz doa?

Ondo; hasieran, kosta egin zitzaizun bezeroak geureganatzea, baina, pixkanaka, gero eta jende gehiago dabil.

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Jendea ezagutzea eta jendearekin harremanak egitea.

Eta gutxien?

Pisu handiarekin ibiltzea; adibidez, esnea bere tokian jartzea.

Lanez aldatzekotan, zertan lan egin nahiko zenuke?

Gustura nago daukadan lanarekin; lehen kamioi gidari ibili nintzen, eta hura baino gustukoago dut oraingoa.

Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?

Semearekin joaten naiz bizikletan ibiltzera. Askotan, Urkulura joaten gara, baina Bergaran ere ibiltzen gara, bidégorrian.

Txirindularitza, hortaz, gustuko duzu.

Bai, baina gehiago gustatzen zait pilota.

Zein pilotari duzu gustuko?

Martinez de Irujo; lehenengoz jokatzeko ikusi nuenean, harrিতuta geratu nintzen eta lagun bati esan nion: "Horrek laster jantziko du txapela", eta halaxe izan da.

Musika talde bat?

Sting.

Film bat?

El padre de la novia.

Bukatzeko, eska itzazu hiru desio.

Munduan gerrak bukatzea, gosea bukatzea eta nire negozioan eta bizitzan dena ondo ateratzea.

AINZANE IRIZAR.

NIREBIDAIAHURA / Saioa Bolibar

MAROKO / 2004ko apirilean

Aste Santuan egin genuen bidaia, bederatzigun egun. Bertatik ni eta beste bi lagun irten ginen; autoan jana eta kanpin denda bat hartuta abiatu ginen, nora joango ginen ideia handirik gabe. Etxean ez zitzairen batera graziaz egin, egia esateko. Izan ere, martxoaren 11ko iskanbila guztia gertatu berria zen eta ez zitzairen gustatu hiru neska bakarrik Marokora joateko ideia. Baina, azkenean, ez genuen inongo arazorik izan. Nik betidanik nahi izan nuen bertara joan, eta, gainera, gurekin etorritako lagun bat egonda zegoen jada. Tarifan ferrya hartu eta Chaouen-en egin genuen lehen gaua. Hurrengo egunean euria zenez, hegoaldera joatea erabaki genuen eguraldi onaren bila, nahiz eta bero handirik ez zuen egiten. Desertu aldera jaitsi ginen, beraz, Erfoud aldera. Lo egiteko arazorik ez genuen izan bidaia guztian, leku guztietan daude eta kanpalekuak, oso merke, gainera. Desertura hurrengo goizean abiatu ginen. Errepiderik ez dago deserturako eta gidari bat kontratatu behar izan genuen sartzeko. Gau bat pasatu genuen han, bertako aterpetxe baten, barrurago ez ginen sartu. Ikusgarria da desertua, telebistan ikusten den modukoa baina itzelagoa. Oso polita da dena, bukaezina dirudi, duna




*"Desertua ikusgarria da; telebistan ikusten dena baino itzelagoa da; bukaezina dirudi, duna mordoarekin"*

*"Herri txikiak eta leku galduak ikusteko aukera izan genuen, geure autoan joan ginen eta"*

Zorte handia izan genuen, dena ondo atera zen. Norbaitek Marokora joan nahi badu, guk egini-ko ibilbidea gomendatzen diot. Denetik ikusi genuen; onena bidea autoz egitea da.

JON BEREZIBAR




Desertuak izugarri harritu zituen Saioa eta bere lagunak.



**EL CARMEN**  
GARBIKETA  
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua  
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak  
Moketa garbiketak  
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39  
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23



**ARRI**  
Industri hornidura  
*Latigilloak*

Telleria 2  
BERGARA  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoa: 656 78 64 84

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 76 39 53



A Ze Flaxa taldeak irabazi du aurten Ipintzako txapelketa.



Partidu berdindu samarra izan arren Mongatxurak taldeak ezin izan zuen garaipena lortu.

## IPINTZAKO TXAPELKETA

# A Ze Flaxak 2-0 irabazi zion Mongatxurak taldeari Ipintzako beteranoen mailako finalean

Maila altuko finala izan zen pasa den egubakoitzean jokaturakoa. Guipuzcoano eta Bildurbarek Opel-Lam geratu dira 3. eta 4. postuetan.

JON BEREZIBAR

**Aurtengo Ipintzako txapelketa A Ze Flaxa taldea izan da txapeldun. Partidu oso berdindu izan arren Mongatxurak taldeak ezin izan zion aurre hartu. Patxi Vallejos izendatu dute jokalaririk onena aurten.**

Maila altukoa izan zen joan den egubakoitzeko beteranoen finala. Nahiko berdindua izan zen partidua, bukaerara arte ez baitzen irabazle garbirik atera, eta berdinketa espero zen. Azkenean, 2-0eko emaitzarekin irabazi zion A

Ze Flaxak Mongatxurak taldeari. Partiduak, gainera, interes handia piztu zuen zaleen artean, jende ugari bildu baitzen Ipintzako zelaian finala ikusteko.

Partidu polita izan zen eta merezitakoa, azkenean, A Ze Flaxa taldearen garaipena, mailari eustea lortu baitzuten. Aurreko urtean Mongatxurak gogor ibili bazen ere, azkenean ez zuen irabazterik izan. Hala eta guztiz ere, oso partidu berdindua izan zen.

Denboraldi ona egin du A Ze Flaxak, eta azkeneko emaitzetan ikusi da batez ere. Hasieran par-

tidu kaxkar batzuk egin zituen arren, azkar erreazionatu zuten eta azken txanpa bikaina egitea lortu dute.

Halaber, Guipuzcoana eta Bildurbarek Opel-Lam taldeek eskuratu zituzten 3. eta 4. postuak.

Jokalaririk onenari dagokionez, Patxi Vallejosek eskuratu zuen saria. Taldea behar bezala eramaten jakiteagatik azpimarratu dute Atezain onenaren saria, ostera, Canalejas taldeko Carlos Rodrigori eman diote aurten. Duni Olabarriak jokalaririk beteranoenari zegokion saria eskuratu zuen.

Ligako sailkapenean, baina, emaitzak bestelakoak izan dira. Puntuak kontuan hartuta, Guipuzcoana taldea geratu da lehenengo.

## NESKEN PARTIDUAK

Nesketan ere azken partiduak jokatzeko ari dira. Finalerdietan irabazi eta gero, Ogizun eta Potzu eta Zapaburuak taldeek jokatuko dute gaur, egubakoitza, finala, 19:45ean. Nesken txapelketan alde handiak egon dira taldetik taldera eta mailarik altuena erakutsi dute, sailkatu dira azkenean gaurko finalerako.

## PILOTA PARTIDUAK

## PARTIDUAK

EGUBAKOITZA, 9 (SENIOR NESKAK)  
18:45: A Willy Willy-Ou Pitxu Ou!  
19:45: Ogizun-Potzu ta Zapaburuak

ASTELEHENA, 12 (SENIOR MUTILAK)  
19:30: A Ze Flaxa Guipuzcoana-Bildurbarek

MARTITZENA, 13 (SENIOR MUTILAK)  
19:30: FINALERDIA (uztailek 7ko irabazleak)

EGUBAKOITZA, 16 (SENIOR NESKAK)  
19:30: FINALA

## Oraingo bi fitxaketa egin ditu Bergara KEko futbol talde nagusiak

J.B.

**Denboraldi berriari begira, oraingo bi fitxaketa egin ditu Bergarako preferente mailako futbol taldeak. Dagoeneko bi fitxaketa daude erabakita. Eibar taldetik Josu Etxaniz elgetarra ekarriko dute eta Mondra taldetik Ekain Garin jokalaria. Halaber, beste bi fitxaketa berri egin nahi dituzte, aurrelari bat eta hegaleko beste jokalaririk bat. Jokalaririk berriak dauden moduan, beste lau baja egon dira. Ander Ruiz de Azua atezaina Mondrara itzuliko da eta Iker Roblesek, ostera, futbola ixteko erabakia hartu du. Bi jokalaririk huetaz gain, Iban Unanue eta**

Datorren denboraldiari begira zenbait aldaketa izango ditu Bergarako preferente mailako futbol taldeak. Dagoeneko bi fitxaketa daude erabakita. Eibar taldetik Josu Etxaniz elgetarra ekarriko dute eta Mondra taldetik Ekain Garin jokalaria. Halaber, beste bi fitxaketa berri egin nahi dituzte, aurrelari bat eta hegaleko beste jokalaririk bat. Jokalaririk berriak dauden moduan, beste lau baja egon dira. Ander Ruiz de Azua atezaina Mondrara itzuliko da eta Iker Roblesek, ostera, futbola ixteko erabakia hartu du. Bi jokalaririk huetaz gain, Iban Unanue eta



ARTXIBOA

Astelehenean hasiko ditu entrenamenduak Bergara KE taldeak.

Josetxo Lizarralde ere taldea laga egingo dute. Alde teknikoan ere aldaketak egongo dira. Igor Gordobil izango da lehen entrenatzailea berria. Bigarren entrenatzailea, berriz, Andoni Azkargorta izango da.

## ENTRENAMENDUAK

Astelehenean ekingo die taldeak entrenamenduei, eta abuztuaren bi asteko atsedena hartu baino lehenago, Urolaren aurkako lagunarteko partidua jokatuko dute 30ean.

## Parte-hartze handia udako kirol kanpainen

J.B.

**Dagoeneko amaitu da Udako udako kirol kanpainen lehen txanda. Aurten ere parte-hartze handia egon da programaturako kirol jardueren gehienetan. Igeriketa eta spinninga izan dira arrakastatsuenak aurten.**

Ekainaren 28an hasi eta gaur arte igeriketa, tenisa, piraguismoa edota eskalada moduko kirolekin disfrutatzeak aukera izan dute Bergarako haur zein gaztetxoek. Bigarren txandari dagokionez, astelehenean hasiko da programazio berberarekin eta uztailearen 23ra arte izango dira jarduerak guztiak.

Spinninga eta haur igeriketa izan dira aurten kirol arrakastatsuenak lehenengoko txanda. Goizeko eta arratsaldeko taldeak batera hartuta, 51 lagunek hartu dute parte igeriketa ikastaroetan.

Spinningen, ostera, 60 gaztek, hamarrek sei taldetan banatuta. Gainerako kirolean ere jende dezente eman du izena. Udako kirol kanpainak aisialdirako aukera zabala eskaini du aurtengoan ere. Ohiko kirolean talde guztiak osatu dira, tenisean edota pilota kirolean batez ere. Huetaz gain, aerobik taldean, patin gaineko hockeya eta piragua ikastaroan parte hartzeko aukera ere egon da. Arku tiroketa eta yoga taldeak ere osatu nahi izan dira, baina ez lehen txandan eta ezta ere bigarrenetan, inork ez du izenik eman jarduerotan.

## BIGARRIN TXANDA

Astelehenean hasiko da udako kirol kanpainako bigarren txanda. Dagoeneko izena emateko epea itxita dago eta talde guztiak osaturik daude. Hilaren 23a arte izango da bigarren txanda hau eta aurrekoaren kirol eskaintza berbera izango du.



## ELKARRIZKETA

RACHEL OLABARRIA/OIARTZUN FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

# "Nire bizitzako urterik onena izan da hau, futbolari dagokionez"

JON BEREZIBAR

Denboraldi bikaina bukatu berri du Rachelek Oiartzungo futbol taldearekin. Nesken Superligakoigoerarako partidua jokatu zuten Bartzelonaren aurka eta azkenean 2-3 galdu zuten arren, urte berezia izan da hau.

### Nolatan hasi zinen Oiartzungo taldean?

Euskadiko selekzioetik ezagutzen nituen hango jokalaria, eta eurek esanda joan nintzen. Hasieran gogorra egiten zitzaidan haraino joan behar izatea, baina giroa apartekoa zen. Dagoeneko urtebete egin dut, denboraldi bat. Oso gustura nago, bai jende aldetik zein futbolari dagokionez ere. Ahalegin berezia egin du elkarteak nesken futbolaren alde?

Bai, izan ere, lehentasun berbera ematen diete mutileri zein neskeri. Partidu guztiak jokatu ditugu belarretan eta hori ez da leku guztietan gertatzen. Oiartzunen agerikoa da neskekiko konpromisoa hartzen dutela. Aurtengo emaitza onak ere horren fruitu dira, ondo egindako lanarena. Hasieran inork ez zuen federik gudan, baina pixkanaka ligan gorantz joan ginen eta oso ondo amaitu dugu.

### Gogorra izan zen Bartzelonaren aurkako partidua?

Egia esatearren, beldurrez joan ginen hara. Aurreko partidua Gijonen aurkakoa izan zen eta epailearen lana lotsagarria izan zen. Aukera ia galdu egin genuen. Horren ondorioz, biktima antzean joan ginen, baina jende asko joan zen Oiartzundik Bartzelonara animatzera, eta horrek



BERRIGARA

izugarri lagundu zigun. Oso talde ona da Bartzelonakoa; hala ere, pena handiarekin itzuli ginen etxera.

### Nesken futbola bogan dagoela dirudi. Itxura hutsa da?

Egia da Athleticen kontu guztiarekin eta Realak laster aterako duen taldearen inguruan asko ari dela hitz egiten nesken futbolaz. Kontua da baldintzak asko aldatu direla. Horren atzean ahalegin handia dago. Jende askok egin du lan, hautatzailetik hasita, azken jokalariraino. Jendea asko mugitu da nesken futbola aurrera ateratzeko. Zaleen aldetik, jende askok, futbola ez gustatu arren, babes handia eman digu. Hedabideetan ere oihartzun handia izan du azkenaldian, eta badirudi interesa piztu dugula.

### Entrenatzailea ere gustura?

Gure entrenatzaileak aurretik beti lan egin izan du mutilekin, eta nesken taldean ezustean hasi zen. Hasieran ez zegoen bate-re motibatua neskekin aritzeko, baina kopako finaleko partidua ikusi zuenean harritu egin zen. Guk bloke moduan egiten dugu joko, batek ez du beste batek baino garrantzi handiagoa hartzen, denak gara bat. Gu gogotsu ikusi gaitu eta hark ere ahalegin handia egin du, niri asko gustatu zait entrenatzaile modura.

### Azkenean ezin irabazteak pena handia eman zizuen?

Nik futbolarengatik oso gutxitan egin dut negar, baina galdutakoan malkoak irten zitzaizkidan dena amaitu zelako. Nire bizitzako urterik onena izan da hau, futbolari dagokionez.

## MENDIZALETASUNA

### Tresvisora irteera Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeek antolatuta, uztailearen 18an

Nagusientzako mendi irteera antolatu dute Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeek. Picos de Europa izango da irteera, Tresvisora hain zuzen ere, eta uztailearen 18an egingo da. Irteera egun osokoa izango da. Hitzordua goizeko zazpitan egin dute Bergarako frontoian. Txartelak Pol-Pol tabernan daude eskuragarri.

## TXIRRINDULARITZA

### Lokatza elkarteak Tourrerako antolatutako porran 252 lagunek hartu du parte

Aurten Lokatza Txirrindulari elkarteak Tourrerako egindako porran 2.520 euro eskuratu ahal izango ditu irabazleak. Bigarrenak 1.260 euroko saria jasoko du eta hirugarrenak 756 eurokoa. Guztira, 252 lagunek hartuko dute parte aurten eta bakoitzak egindako 20 euroko apustuarekin 5.040 euro bildu dira orotara.

## ZIKLOTURISMOA

### Bihar egingo dute Txirrindulari Elkarteak urteko txangoa, aurten Zalla aldera

Bihar egingo du Bergarako txirrindulari elkarteak urteroko txangoa. Aurten Zallara izango da irteera eta hango inguruak ezagutzeko 84 kilometroko ibilbidea prestatu dute, Tornos izeneko mendatea barne. Goizeko seietan abiatuko dira eta gaueko bederatzietarako itzultzeko asmoa daukate. Hogeita hamar bat txirrinduzalek hartuko du parte aurtengo txangoan, egun bikain bat pasatzeko asmoarekin.



AMAIA ANDUEZA

Zutik, Neritzel eta Elixabeth eta azpian, Nerea eta Ana Ordiziako txapelketan.

## Igeriketa taldeak lan ona egin zuen Gipuzkoako txapelketan

J.B


Joandako asteburuan Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Ordizian. Junior, promes eta absolutu mailetan, Bergarako igeriketa taldeko lau neskek hartu zuten parte. Emaitza onekin itzuli ziren etxera.

Gipuzkoako junior, promes eta absolutu mailetak txapelketa jokatu zen Ordizian, asteburuan. Absolutu mailan aurrean sailkatzea lortu zuten igerilariak. Emaitzarik onenak Elixabeth Laskurainek izan zituen. Junior kategorian egin zuen igeri Elixabethek, eta 50 m tximeletan lehen postua lortu zuen. Marka horrekin absolutu mailan hirugarren geratzea lortu zuen ber-

gararrak. Neritzel Albiak ere lan polita egin zuen asteburuko txapelketan. Hura ere juniorretan, hirugarren geratu zen 200 m bular kategorian eta absolutu mailan laugarren postua eskuratu zuen. Nerea Anduagak promes kategorian hartu zuen parte, eta 50 m libreetan bederatzigarrena izan zen. Infantiletan, Ana Balentziagari dagokionez, 100 m libreetan egin zuen markarik onena, zazpigarren postuarekin. Absolutu mailan erreleuetan hartu zuten parte laurak. Bertan zazpigarren izan ziren 100 eta 50 m libreetan eta 50 m estiloetan.

Lau igerilariok asteburu honetan Euskal Herriko txapelketan hartuko dute parte, Donostian. Txapelketa hau denboraldiko azkena izango da.

## FOTOKIROLA




### Binakako VII. frontenis txapelketa

Joandako asteburuan jokatu zen Angiozarko frontoian Bergarako binakako VII. frontenis txapelketa. Aurtengo bikote irabazlea Candido Hurtado eta Jose Izquierdok osatutakoa izan da. Finalean 30-26 irabazi zioten Iñaki Sanchez eta Kepa Garciari. Eta 3. eta 4. postuak ere erabaki ziren. Patxi Vallejos eta Xabier Albiak geratu dira hirugarren aurten, eta laugarren, Carmelo Barkala eta David Bellanco. J.B

# ARREGI AROZTEGIA




PVCzko  
LEIHOAK



Zatoz gure  
erakusketa handitu  
eta berritura.  
Bidekurutzeta  
38an gaude.

HORMA ARMAIRUAK



SUKALDEAK

ATEAK ETA  
LEIHOAK



BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoia • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

## BEDELKARREN UDAKO ZOZKETA

2004eko ekainaren 30ean, egin zen zozketa.  
Irabazlea, Arrate Basauri izan da.  
Saria: Bedelkarreko 1go pintura lehiaketan  
saritutako kuadroa.  
Zorionak, Arrate!





Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 28. alia

## IEPA LAGUNOK!

Iepa!! Egun aproposak dira hondartzara juateko. Baiña, zuek ez zarete hondartzara juan nahi dozuen bakarrak. Irakurri beheko ipuiña eta ikusiko dozue bertako pertsonajiak be itsasua ikusteko gogo biziz zela daren. Ia egunen batian hondartzan ikusten ditzuzuen!



## URREZKO ARAUAK

- Zuek haiek ikusten ditzuzue.
- Zu ez zaitut ezagutzen.



- Zuek haiei ikusten detsazue.
- Zuri ez detsut ezagutzen.



## IPUIÑA "Itsasua gustatzen jakon haizia"

Ni haizia naiz eta edozein tokitan bizi naiz, beti mobimentuan. Inguru desberdinetako gorabeherak lekuz aldatzen ditud, baita arnasarik hartzen ez dabenak be. Itsasua dot gustoko eta ahal doten gehixenetan hurbiltzen naiz bertara.

Gaur be hondartzara juateko egun egokixa dala pentsatu jat eta bi aldiz pentsatu barik juatia erabaki dot; baiña bidian galdu egin naiz, ez dakit nun sartu naizen.

Ointxe puntuan "Bergara" jartzen daben kartel bat ikusi eta nun nagan konturatu naiz; dana dala, ondo akordatzen banaiz, herri honetan ez dago hondartzarik.

Badakit oindio be denbora asko biharko dotela itsasua ikusi ahal izateko, baiña oso ahulduta sentitzen naiz eta egun batzuetan atsedena hartzia erabaki dot. Bakarrik eta pentsakor nago, baiña halako batian...

- Kaixo! Zu ez zaitut ezagutzen.- esan dost laino batek.
- Ez, herri honetara heldu berrixa naiz, oso nekatuta sentitzen naiz eta atsedena hartzia pentsatu dot.
- Atsedena, zertarako? Nora aillegatu nahi dozu?
- Itsasua ikaragarri gustatzen jat eta bertara juan nahi neuke.

Lainuari be gustatu egin jako nire asmua, eta ia nerekin etorri leikien galdetu dost.

- Bai, jakiña! Horrela ez naiz bakarrik sentituko!

Bi eguneko atsedena hartu ondoren, itsas aldera abentatu gara lagun berrixak. Aurrera jarraitu ahala, bateren bat oihuka dagola somatu dot. Laguntza eske dabillen laino zahar bat da.



- Nora zoiazte? Oso nekatuta sentitzen naiz eta ez daukat indarrik aurrera jarraitzeko.

- Itsas aldera goiaz, nahi badozu, etorri zeinke gurekin eta itsasoko arnasiak sendatuko zaittu.

- Ez dakit itsasoraiño aillegatzeko gai izango

naizen, ez daukat bape indarrik.

- Lasai, nere bultzakadiarekin itsasoraiño aillegatuko zara.

Eta hala izan da, nere bultzakadiarekin eta lainuaren laguntziarekin itsasoraiño aillegatzia lortu dau laino zaharrak.

Itsasua ikusi bezain laster irribarria agertu da hiru lagunen aurpegixetan, poza da nagusi. Itsasuaren usaiña arnasten hasi orduko sendatu da laino zaharra. Eta beste bi lagunok be geroz eta osasuntsuago sentitzen gara.

Benetako lagunak egin gara eta luzaruan berriketan egon ondoren, beste hondartza batzuk ezagutzia pentsatu dogu.

Hemendik aurrera itsasuan barrena ibilliko gara, hondartza desberdiñak ezagutu eta lagun berrixak egiñez.





Argazkian, Basin Street Cafe taldeko kideak. Gaur gauean Espoioian izango ditugu.

**MUSIKA/** Basin Street Cafe taldearen blues emanaldia izango da gaur gauean Espoioian

## Musika emanaldiak eta zinea udako gauak alaitzeko

EDU MENDIBIL

*Udako gauak* programaren barruan, musika eta zine emanaldiak izango dira. Gaur, egubakoitza, Bilboko Basin Street Cafe taldearen emanaldia izango da Espoioian, 22:30ean.

Esan bezala, Bilbotik datorkigu Basin Street Cafe taldea. Taldea 2001. urtean sortu zen eta lau lagunek osatzen dute: Pablo Almaraz (bateria eta harmonika), Eduardo de Mujika (gitarra), Elias Casado (bateria) eta Alvaro Diez-ek (bateria), hain zuzen. Dagoeneko grabazio bat kaleratu dute eta bigarren lana argitaratzear dira. Taldearen izena Doctor John-en *Basin Street Blues* kantutik atera zuten. Blues klasikoa eta dixie jazz doinuak tartekatzen dituzte beraien bestietan. Alvaro bateria joleak

*Zine emanaldiak eguenetan izango dira, San Martin plazan, 22:00etan*

zera adierazi digu: "Kubatar sustaia duten kantuak eta New Orleans aldekoak ditugu gustuko. Era berean, Tom Waits-en bertsio bat ere egiten dugu zuzenean". Hurrengo astean Cazorlako Blues Jaialdira joango dira bilbotarrak.

**LOS FASTUOSOS DE LA RIVERA 16AN**  
Beste mi musika emanaldi izango dira Espoioian datozen asteotan. Los Fastuosos de la Rivera taldeak rhythm-and-blues eta funky musika ekarriko du Espo-

ioira datorren egubakoitzean, hilaren 16an. Eta hurrengo astean, hilaren 23an, Kebab taldearen txanda izango da. Jazz musika estiloa jorratzen du Kebabek.

### ABUZTUAN, ZINEA

Azken urteotan ohikoa denez, abuztuan zine emanaldiak izango dira San Martin plazan. Lau film eskainiko dira: *La edad de hielo* (abuztuaren 5ean, gaztekeraz), *Deep blue* (hilaren 12an, euskaraz), *Días de futbol* (hilaren 19an, gaztekeraz) eta *Motham, azken profezia* (hilaren 26an, euskaraz). Emanaldi guztiak 22:00etan egingo dira.

Orain dela lau urte hasi zen Kultura Zerbitzua *Udako gauak* programarekin. Uztaila eta abuztuko gauak alaitzea da helburu nagusia. Udaleko iturrien araberak, aurreko urteetako balorazioa positiboa izan da.



San Kristobalen jaiak izango dira aste bukaeran.

## Jai ospakizunak San Kristobal auzoan eta Santa Marinan

E.M.

Bihar, zapatua, San Kristobal eguna ospatuko da Aldai Egia auzoan. Egubakoitzean 12:00etan meza izango da eta jarraian autoen bedeinkazioa egingo dute. Ondoren, Aimar Irigoien harri jasotzaileak erakustaldia egingo du eta Alustiza eta Astorkia trikitilariak giroa alaituko dute. Gauean, Gardoki taldearekin errome-

ria. Domekan ere egubakoitzean ostean autoen bedeinkazioa izango da eta trikitilariak eta dantzarien saioak izango dira.

Bestalde, Santa Marinarako jaiak hasiko dira hurrengo astean. Astelehenean egubakoitzean txapelketak izango dira erretiratuaren, hilaren 16an, boccia txapelketa jokatu da, 19:30ean. Santa Marina eguna uztailaren 18an ospatuko da.



### Bisita gidatuak Turismo Bulegoaren eskutik

Turismo Bulegoak ondoko ordutegia izango du uztailaren: astelehenean zapatua 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Egunero doaneko bisita gidatuak antolatzen dituzte.

Turismo Bulegoa irailaren 30era arte izango da zabalik. Isabel Lopez, Josune Galartza eta Maialen Elortzak dihardute bertan lanean. Edozein argibidetarako 943 77 91 28 jo dezakezue. Argazkian, astelehenean etorritako bisitari talde bat.

## Idoia Iriarte Irureta

Dentista

Artekale 1 - 1C Bergara Tel.: 943 76 01 65

Odontologia orokorra •

• Asegurua: LAGUN-ARO

GARRAIOAK  
**ANDUZU**  
TRANSPORTES

BERGARA  
607 349 043



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta era guztiak

E, TXO!

**GERO ETA GAZTEAGOAK  
ALKOHOLA EDATEN**

Drogen Abusuaren Ikerketa eta Prebentziorako Gipuzkoako Elkarteak prebentzio programa bat sortu du lehenago eta modu konpultsiboagoan edaten hasten diren gazteentzat. Programa 16 eta 20 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Helburu nagusiak dira alkohola kontsumitzen hasteko adina atzeratzea, gero eta txikiagoa baita (12 eta 13 urte bitartean) eta haren arriskuei buruzko informazioa hedatzea.

**'ORDENAGAILUAREN  
SINDROME' GAZTE ASKOK**

Ikusmen arazoak, goragaleak, bertigoak eta oro har nekea izaten dituzte Ordenagailuaren *sindrome* izenez ezagutzen den gaitza jasaten dutenek. Ordenagailua ikasteko edo dibertitzeko erabiltzen duten gazteei eragiten die batez ere. Unibertsitaterako adina duten Espainiako gazteen %80k *sindromea* pairatzen dute. Arazo fisikoek gain, ordenagailuen abusuak jarrera nahasteak, isolamendua eta autoestimua galtzea eragin dezake.

**ZIKLOMOTORRAK GIDATZEKO  
ADINA ATZERATUTA**

Gobernuak Gidarien Araudi Orokorra eraberrituko du, besteak beste, 49 zentimetro kubikoko ziklomotorrak gidatzeko gutxieneko adina 14tik 16ra atzeratzeko. Gainera, bidaiari bat eramateko 18 urteko adina ezarriko du. Erabaki horri esker, Trafikoko zuzendari nagusiaren esanetan, urtero gertatzen diren 14 eta 15 urteko gazteen heriotza eta zauritu larri asko saihestu ahal izango dira.

**GUREGAIK/ GAZTERIAREN MUNDUKO III. JAIALDIA**

**Munduko gazteak  
Bartzelonan elkarrekin**

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Gazteriaren Munduko Jaialdia egingo da abuztuan Bartzelonan. Kontinente guztietako gazte elkarteek euren diseinatutako elkartasun gune bihurtuko da Kataluniako hiriburua.**

Bartzelona Gazteriaren Munduko III. Jaialdiaren lekuko izango da abuztuaren 8tik 14ra bitartean. Mundu osoko 10.000 gazte baino gehiago gerturatuko da bertara, tartean baita Bergarako zenbait gazte ere.

Bilera, truke, elkarriketa, hausnarketa eta elkar-ulertzeko gune berezietan parte hartuko dute gazteek.

Dibertsioak ere lekua izango du jaialdian. Ekintza kultural eta turistikoak antolatu dituzte. Izan ere, gazte elkarteek eurentzat prestatzen duten jaialdia da.

**HELBURUAK**

Gazteen ahotsa entzunaraztea da, besteak beste, jaialdiaren asmoa. Horretarako lau arlo nagusi izendatu dituzte: globalizazioa, garapen iraunkorra, kultura aniztasuna eta bakea

Gazteek gizartearen garapenean egin beharreko lana hartuko da kontuan. Baita gazteen erakundeak eta haiek komunean dituzten nahien aldarrikapena ere. Bestalde, nazioarteko kooperazioa indartu nahi dute, kultura arteko trukea eginez.



Bartzelonako Forumeko eraikinetan egingo da Gazteriaren Munduko Jaialdia.

**LOTSABARIK/ Aitor Arantzabal**

**“Euskara normalizatzea da nire ametsa”**

I.A.

**Kostata baina lortu dugu Aitor Arantzabal Lotsabarik ataleko galderei erantzuteko atbenbitztea. Labur baina zuzen erantzun die galderei. Hemen, laguntasuna ezinbestekotzat duen mutil honen hitzak.**

- **Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**  
Gazteendako gauza gehiago ipiniko nituzke; kontzertuak, esaterako.
- **Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?**  
Euskararen aldeko pegatinak; adibidez, Jardunek jaietarako ateratzen dituenak.

- **Telebistako saioren gorrota-garriena? Eta gustukoena?**  
*Día a día* gorroto dut. Gustuko, berriz, *Vaya semana*, oso umoretsua baita.
- **Pertsonaia higuin-garriena? Eta gustukoena?**  
Politikari guztiak iruditzen zaizkit higuin-garriak, ez dutelako ezer ere egiten. Agustin Arantzabal, berriz, gustatzen zait.
- **Zerk amorratzen zaitu?**  
Besteok niregatik gaizki esaka jarduteak.
- **Zer estimatzen duzu besteengan?**  
Laguntasuna
- **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**  
Familiari eta lagunei.

- **Esan eidazu zure bertute bat? Eta akats bat?**  
Bertutea, ingurukoekin esku-zabala naizela; akatsa, aldiz, erraz haserretzen naizela.
- **Zelan ligatzen duzue gazteok?**  
Egiten dudanaren aurkakoa egiten, nik ez baitut ezer ere egiten ligatzeko.
- **Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**  
Ez daukat idealik. Nirekin ongi konponduko litzatekeena.
- **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**  
Kubara, lagunekin. Polita dirudi eta ezagutu nahi nuke.
- **Etorkizunerako amets bat?**  
Euskara normalizatua ikusi nahi nuke



**ADINA:** 20 urte • **IKASKETAK:** Sistema Informatikoen Administrazioa • **ZALETASUNAK:** Futbol partiduak ikustea • **LIBURU BAT:** *SPrako tranbia*, Unai Elorriagarena • **FILM BAT:** *American history X* • **MUSIKA TALDEA:** Betagarri • **KIROL TALDEA:** Reala

**TIRABIRAKA/ Bittor Rodriguez**



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

XVIII. mendeko ze jauregiko armarrria da ezkerrekoa eta XVI. mendeko ze etxetako eskumakoa?

BERGARAROSPETSUAK


Remigio Muxika (1)

KOLDO PEREIRA

Bergaran jaio zen, 1866ko irailaren 29an. Kanta-ikasketak egin zituen. Iruñeko katedraleko tenore-posturako oposizioak ateratu zituen 1888an. Apala eta atsegina zenez, berehala egin zen ezaguna, eta denek estimatzen zuten. Zuzendari-tzarako aparteko dohainak zituela ikusita, 1892an Iruñeko Orfeoiko zuzendari izendatu zuten. Burubelardi jardun zuen kargu horretan, eta hurrengo urtean Bilboko Orfeoi lehiaketako lehen hiru sari irabazi zituen.

Iruñeko Orfeoiaren ibilbidea, hasiera-hasieratik, ezohikoa izan zen garai hartarako. Espainian entzun gabe zeuden lanak estreinatu zituzten, adibidez, Beethoven-en *Misa Solemnis* eta J.S. Bach-en *Misa en Si*. Muxikaren taldea arrakastaz arrakastatu ibili zen. 54 urtez izan zen Iruñeko Orfeoiko zuzendaria, eta adinarengatik utzi zuen kargua. Kontzertu paregabeak eman zituzten Madrilan, Iruñean eta beste hiriburu batzuetan ere. Esate baterako, 1927an, Iruñeko Orfeoiak *Requiem aleman* kantatu zuen Madrilan, On Remigio Muxikaren zuzendaritzapean.

*Muxikaren paisaiek egilearen izaera poetiko eta sotila adierazten dute*



BUA BILDUMA (A.J. IRIGOIEN)

Remigio Muxika, 1942an.

GALDEDEBALDE

- 1.** Zein taldean ari da Rachel Olabarria futbol jokalaririk bergararra?  
A/ Oiartzun.  
B/ Añorga.  
C/ Athletic.
- 2.** Nor da Espoioian joko duen Basin Street Cafe taldeko abeslaria?  
A/ Eduardo De Mujika.  
B/ Pablo Almaraz.  
C/ Alvaro Díez.
- 3.** Zein musika talde zuzendu zuen Remigio Muxika bergararrak?  
A/ Donostiako Orfeoia.  
B/ Bergarako Orfeoia.  
C/ Iruñeko Orfeoia.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

GORKA HEISendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, **Gorka!**  
Galderen erantzunak: Bonofotoa: Santa Marina / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Calvo atun argia

Hiru latako packa.

**2,25 €**

374 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53  
Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

**etxalar**

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
**BERGARA**  
943 76 50 68

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak  
Moketa eta sintasola Harea zorrotada  
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

# Zerrajerako laminazioko langileak, 1961

Zerrajerako laminazioko langileak ageri dira alboko koadroan. Goian, erdi-erdian, Sebastian Arantzabal ageri da. Arantzabalek Argentinara, Buenos Airesera, alde egin zuen 1957. urtean eta han ezkondu zen, Margarita Dorronsororekin, 1961ean. Lankideek alboko koadroa oparitu zioten. Sebastian Arantzabal 1965. urtean Bergarara etorri zen, aita hil zitzaionean, eta orduan eman zioten koadroa lankide ohiek. Ricardo Otaño artista ezagunak egin zuen koadroa, ohiko dotoreziarekin.

Argentinan, Gurmendi laminazio enpresan egin zuen lan Arantzabalek. Bi seme-alaba izan zituen eta horietako bat, Batirtze, Bergaran bizi da egun. Sebastian Arantzabal 1975. urtean hil zen, Argentinan.

Hara hor argazkian azaltzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Goian: Pablo Ojanguren, Sebastian Arantzabal eta Victoriano Azula.

Beherago: Francisco Aranburu, Eugenio Garai, Rafael Atxotegi, Lazaro Marikaide, Jesus Olabarria, Norberto Murgia eta Juan Etxebarria.

Bigarren ilaran: Lamberto Agirre, David Solaun, Basilio Jauregi, Maximiliano Hernandez, Felix Garitano, Jose Lizarralde eta Felix Ugarte.

Behean: Marcos Lete, Lorenzo Centeno, Julian Azkarate eta Martin Muxika.

Argazkia: Felipe Arantzabal



### ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

**Dixula**  
**BOKATAK DAUZKAGU**  
Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tel.: 943 76 44 95

**Aldoka Maldoka**  
TABERNA  
Kruz Gallastegi  
BERGARA

**JAUJA KIROLAK**  
Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**Jose M. Martin**  
pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia  
Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Sugoi**  
ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...  
Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

**ARANE KRISTALDEGIA**  
Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 74 09  
670 483 903

**ARDATZA**  
Brikolajea  
Ateak eta zokaloak | Koadroak markoan ipini  
Horma-armairuak | Era guztietako moldurak  
Sarrailak | Apalak  
Heldulekuak | Kaxoiak  
Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

**GABILONDO**  
INMOBILIARIA  
Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,  
baserriak, lur sailak...  
Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854  
San Frantzizko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko uztailaren 9a / 209. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Haurtzaindegia otsailean zabaltea espero du Udalak


AINTZANE IRIZAR

Urrats berri bat eman du Udalak haurtzaindegiari dagokionez: haurtzaindegia eraikitzeko lanak esleitzeko baldintza pleguak onartu ditu. Udaleko arduradunek espero dute irailean lanekin hastea eta otsailean haurtzaindegia zabaltea.

Aurreko asteko egubakoitzean egin zuen Udalak uztailleko osoko bilkura; hantxe, haurtzaindegia eraikitzeko lanak esleitzeko baldintza pleguak onartu zituen. Lanen esleipenak Udalak berak kudeatuko ditu eta gremioka egingo dituzte esleipenok; horrela, merkeago aterako zaizkio lanak Udalari.

Haurtzaindegia izango denaren aurreproiektua idatzita dago eta behin-betiko proiektua idazten dihardu orain Ingenieria 21 enpresak. Herri Ikastetxeari atxikita egingo dute eraikin berria, jolastokiaren ondoan.

Behin baldintza pleguak onartuta, laster esleitu dituzte lanak, eta irailean lanekin hasteko moduan egongo direla espero dute Udaleko arduradunek; euren asmoa da datorren urteko otsailean haurtzaindegia zabaltea.



Herri Ikastetxeari atxikita egingo dute eraikin berria, jolastokiaren ondoan.

*Udalak berak kudeatuko ditu esleipenak eta gremioka egingo dituzte*

### UDALAK FINANTZATUKO DU

Antzuolako Udala Haurreskolak Partzuergoaren barne dago. Horrela, lanak finantzatzeaz Udala arduratuko da, baina, haurtzaindegia hornitzea eta kudeatzea Partzuergoaren zeregina izango da. Udalak 300.000 bat euro inbertituko ditu haurtzaindegia eraikitzen.

Partzuergoak bi haurtzaindegia maila bereizten ditu: 2.000 biztanletik beherako herrietarako haurtzaindegiak eta 2.000 biztanletik gorako herrietarako. Antzuolak 2.000 biztanle baino gutxiago dituen arren, biztanleriaren goranzko joera ikusita, herri handienetarako moduko haurtzaindegia egingo du.

### UDALA

## Udaleko langileak ez daude ados Eudelek eta CCOOk hitzartutako akordioarekin

AINTZANE IRIZAR

Aurreko egubakoitzeko osoko bilkuran Udalak onartu zuen Eudelek eta CCOO sindikatuak adostutako akordioa bere egitea. Udaleko langileak, baina, ez daude ados erabaki horrekin, eta Udalak negoziatzeko aukerarik ez diela eman salatu dute.

Uztailleko osoko bilkuran, udalbatzarrak onartu egin zuen Eudelek eta CCOO sindikatuak udalako langileen konbenioari dagokionez hitzartutako akordioa. Akordio horretan, ordain-sarien gehikuntza bat aurrez ikusten da.

Udaleko langileak, baina, ez dira ados azaldu erabaki horrekin; Inigo Zubeldia Antzuolako Udaleko langileen ordezkariak

azaldu digunez, alkateak ez die eman negoziatzeko aukerarik; bere esanetan, mahai bat osatzea lortu zuten, azkenean, baina, Udalak Eudelen erabakiarekin bat egingo zuela azaltzeko bakarrik izan zen mahai hori.

Zubeldiaren esanetan, CCOO sindikatuak udaletako langileen %13 bakarrik ordezkatzeko du eta ez dute onartzen sindikatu horrek lortutako akordioa.

Udaleko langile guztiek parte hartu zuten egubakoitzeko osoko bilkuran, eta euren jarrera azaldu zuten hantxe, zinegotzi guztien aurrean.

Inigo Zubeldiaren esanetan, euren eskaerak ez dira ekonomikoak bakarrik, hau da, ez dituzte soldata igoerak bakarrik eskatzen; garrantzi handia ematen diote, esaterako, zerbitzuen pribatizazioaren gaiari.

### LABUR

#### Txirrindulari lasterketa jokatu dute domekan

Domekan, 09:30ean hasita, jokatu dute 59. Antzuola Saria, amateur mailako txirrindulari lasterketa. XII. aldia izango da Inaki Leteren oroimenez jokatzeko dutena. 19 eta 20 urte bitarteko txirrindulariek parte hartuko dute; 12:30 aldera bukatuko da lasterketa, herriko plazan.

#### Gazteek jaso dituzte dagoeneko gaztetxeko giltzak

Gazteek gaztetxea izango den lokalaren giltzak jaso dituzte dagoeneko, eta lokala egokitzeko lanekin dihardute orain. Oraindik ezin izango dute gaztetxea zabaldu; izan ere, lokala oso itxia denez, estraktore bat jarri beharra dago. Gauzak horrela, irailera arte ez dute zabalduko gaztetxea.

#### Arrolak jarritako gurutzea moztu egin dute

Otsailean jarri zuen Arrolak Zurkutzen, Arantzazun, gurutzea, Jesus Odriozolaren ekimenez; Jesus Antzuolan bizi den arren, Arantzazukoa da eta aspaldi Zurkutzen desgertutako gurutzea berreskuratu nahi izan zuen. Aurreko astean norbaitek hondotik moztu du gurutze hori.

#### Erretiratuen Eguna ospatuko dute domekan

Etzi, domeka, ospatuko dute Erretiratuen Eguna. 11:30ean meza izango dute; Bergarako San Joxepe erretiratuen elkarteko abesbatzak parte hartuko du mezan. 14:00etan, berriaz, bazkaria izango dute herriko erretiratuek. Aurten ez dute aurreko urteetan bezala frontoian egingo bazkaria, Herri Ikastetxean baizik.



PROIEKTUAK

# Gertu Gae taldeak kritikatu egin ditu Udalak aurkeztu berri dituen proiektuak

A.I.  
Gertu Gaek jendaurreko agerraldia egin zuen martitzenean, herrian aurrez ikusten diren hainbat proiekturen gainean bere iritzia azaltzeko. Batetik, Udalak aurkeztutako proiektuak kritikatu zituen; bestetik, errekaren proiektuaren gainean jardun zuen.

Gizarte Etxea Sagastiko zelaian egiteko asmoa azaldu berri du Udalak; bestetik, maristen eraikina zegoen tokian etxebizitzak egiteko proiektua. Udalak dituen asmo horien kontra azaldu da Gertu Gae. Hala ere, argi laga nahi izan zuten aurkezpenaren helburua ez zela Udalaren jardunaren aurka egitea; eurek nahi dutena da ahalik eta adostasun handiena lortzea eta herritarren iritzia ere kontuan hartzea.

Plataformako kideek azpimarratu zuten herriaren lehen-tasunak zeintzuk diren zehazteko momentua dela. Euren ustez,



Martitzen arratsaldean egin zuen agerraldia Gertu Gae plataformak.

Gizarte Etxea egiteari eman behar zaio lehentasuna, baina ez daude ados Sagastin egitearekin. Maristen eraikina zegoen tokian egitea proposatu du Gertu Gaek talde-

koek. Hauek, azaldu zuten, eurek proposatzen dutena ez da lehengoa bezain eraikin handia egitea, txikiagoa eta baxuagoa, baizik.

Herrian geratzen den berdegune bakarrean eraikin bat egitea, berriz, astakeriatzat jo zuten.

Etxebizitza multzoari dagokionez, adierazi zuten oso larria dela Udala lursail publikoekin espekulatzeko ibiltzea. Galdera bat ere bota zuten: "Beharrezkoak dira herrian horrenbeste etxebizitza?". Horren harira, berriz ere azpimarratu zuten lehentasunak zehazteko beharra.

**ERREKAREN PROIEKTUA**

Eusko Jaurlaritzak egin duen errekaren proiektuari dagokionez, aldaketak proposatu zituen Gertu Gaek. Euren ustez, erreka zabaltzea derrigorrezkoa bada, plaza salbatzea ere derrigorrezkoa izan beharko litzateke.

Jaurlaritzaren proiektuaren arabera, hiru zubi edo plataforma izango lituzke errekak plaza. Gertu Gaek proposatzen du erdiko zubia udaletxea baino zabalagoa izatea. Euren ustez, helburua izan behar da plaza funtzional bat lortzea.

LABUR

## Madariagak kargua laga du mehatxuak direla eta

EAJ-EA koalizioako zinegotzi Gurutz Madariagak kargua laga du. Udalbatzarraren aurrean azaldu zuen dimisioaren arrazoia izan dela mehatxatuta sentitzen dela. EAJ-EA koalizioak, ofizialki, zortzi zinegotzi lortu zituen hauteskundeetan, baina bostek bakarrik hartu zuten kargua. Madariagak ez zuen bere kargua hartu urrira arte. Bere esanetan, ordutik hona mehatxatuta sentitu da.

EAJ-EAK idatzi bat kale-ratu du egoera hori salatzeko eta Gurutzi elkartasuna adierazteko. Etxez etxe banatu zuten idatzi hori aurreko egubakoitzean.

## PSE-EEK aurkeztutako mozioa onartu zen

Elvira Kortajarena zinegotziak, PSE-EEren izenean, Gizarte Emergentzietarako Laguntzen gaineko mozioa aurkeztu zuen aurreko egubakoitzean, uztaileko osoko bilkuran. Mozio horretan, Eusko Jaurlaritzari Udalak eskatzen dio Emergentziarako Laguntzarako beharrezko aurrekontua zehaztuta izatea. Udalbatzarrak erabaki zuen mozioa onartzea.

## Liburutegia itxita egongo da datorren aste ia osoan

Datorren astean, astelehenean bakarrik zabalduko dute Udal Liburutegia. Izan ere, liburutegiko arduradunak ikastaro bat egin behar du martitzenetik eguenera. Egubakoitzean, berriz, jaiak direla eta, itxita egongo da. Gogoratu behar dugu, gainera, uztaile amaiera arte, goizez bakarrik zabaltzen dutela, 11:00etatik 14:00etara. Irailean helduko diote ohiko ordutegiari.

GIZARTEA

# Parte-hartze Taldea osatu du Elkarrik

A.I.  
Momentu honetan III. Bake Konferentziaren elkarriketa politiko eta sozialaren fasean dago Elkarri. Fase horretarako, Herrietako Parte-hartze Taldeak (HPT) osatu dituzte Euskal Herriko osoko 100 herritan. Horietako talde bat Antzuolan osatu dute.

dianitzak osatzea proposatzeko.

Horrekin batera, gizartearen parte-hartzea ere funtsezkoa dela uste du Elkarrik. Horregatik, Herrietako Parte-hartze Taldeak osatu dituzte Euskal Herriko 100 herritan. Herri horietako bat da Antzuola.

Hogei bat lagunek osatzen dute Antzuolako taldea. Urritik aurrera hiru batzar egingo dituzte; bi gai landuko dituzte: "Zela irudikatzen duzu etorkizuna bakean" eta "Horretara hurbiltzeko zein proposamen zehatz egon daitezkeen". Ateratzen diren ondorioak alderdi politiko guztiei helaraziko zaizkie.



120.000 sinadura batu zituen Elkarrik Euskal Herrian.

Iazko urrian ekin zion Elkarrik sinadura bilketa kanpainari; helburua zen Eskaera Eskubidea erabilita, Eusko Legebiltzarrera eta Nafarroako Parlamentura jotzea, elkarriketa mahai alder-

DEKORAZIOA  
**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

# EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

## LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko uztailaren 9a / 193. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Uriartera ura eramateko lanak uztailean amaituta

IRATI AGIRREAZALDEGI

Uriarte auzoan urarekin dituzten arazoak konpontzeko hainbat obra egin dituzte. Bigarren zatiko lanak uste baino geroago hasi dituzten arren, horretan dihardute jadanik eta hilabete honen amaierarako lanak amaituta izatea espero dute.

Uriarte auzoko baserritarrek urarekin dituzten arazoak aurki konponduko dira. Orain dela gutxira arte iturburu batetik hartu dute ura, eta lehorte garaietan larri ibili dira urik gabe.

Uriartera ura eramateko lanen lehenengo fasea egin zuten lehen, eta bigarren zatiarekin orain dela gutxi hasi dira.

Lehenago ziren lan horiekin hastekoak, baina eraikuntza sektoreko greba dela-eta atzeratu egin zituzten obrak. Orain, errepide aldamenean zulo handi bat egin eta aurki egokituko dute hodiekin ura auzora eramateko. Lanek uztailean amaierarako amaituta egon behar lukete.

Auzo horretan bertan, Olei inguruko baserriek oraingoz ez dute urarekin arazorik, baina



Uriarte auzoan, errepide aldamenean, zulo bat egin dute ur sarea egokitzeko.

inoiz izanez gero, egongo da ur sarera lotura egiteko aukera.

Fhimasa enpresak hartu du lan horiek egiteko ardura, eta guztira 110.905 euroko kostua

izango dute. Mendi Nekazaritza Elkartek, Ur Partzuergoak eta Udalak finantzatu dituzte obrak eta baserritarrek ere kuota bat ordaindu beharko dute.

## GARRAIO PUBLIKOA

### Eskolara autobusez joateko dei egin dute

I.A.

Datorren ikasturtean Bergarara eskolara autobusez joan nahi duten ikasleei dei egin diete izena eman dezaten. Horretarako, uztailearen 12a baino lehen udaletxera jo beharko dute interesatuek.

Bestalde, elgetarrek garraio publikoarekin duten arazoa konpontzeko Udalak eskaria egin dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, zerbitzu kopurua handitzeko.

Besteak beste, goizeko lehen orduetan ikasleak eskolara joateko eta eguerdian bueltatzeko autobusa egotea eskatu dute; baita goiz partean jendea Eskualde Ospitalera joateko zerbitzua ipintzea ere. Horrez gain, arratsaldean beste joan-etorri bat egitea.

#### GUTXIENEO BIDAIARI KOPURUA

Foru Aldundiak esan du zerbitzu horiek erabiliko dituzten gutxieneko bidaiari kopurua bermatu behar duela Udalak, eurek diruz lagundu ahal izateko. Bidaia bakoitzean hamar lagun joan beharko lukete.

Udala garraio publikoarekin arazo bertsua duten ibarreko beste bi herrirekin (Antzuola eta

*Ikasleek uztailearen 12a baino lehen eman beharko dute izena eskolako autobuserako*

Gatzaga) ipini da harremanetan eta autobus zerbitzuak bateratzea da euren nahia. Honela, jende gehiago joango litzateke bidaia bakoitzean.

Laster dira elkartzeokoak hiru udalotako ordezkariak gailariburuz berba egiteko, baina oraindik ez dute erabaki zehatzik hartu, eta Foru Aldunditik ere ez dute erantzun garbirik jaso.

Beraz, nahiz eta eskatutako zerbitzua ipiniko duten ez jakin, ikasleek izena eman beharko dute datorren ikasturterako. Izene-matea zabalik dago udaletxean. Jasotako erantzunaren arabera pentsatu beharko dute irailetik aurrera lineako autobusean edo beste moduren batean joango diren eskolara.

## LABUR

### Udaletxea goizez bakarrik egongo da zabalik uztailean

Udako giroarekin batera udako ordutegia izaten da hainbat lekutan, eta Elgetako udaletxean ere ordutegi berria izango da uztailean. Goizez egongo da zabalik, 08:00etatik 15:00etara. Beraz, udaletxean gestio, kontsulta edo bestelako eskariren bat egin nahi duten herritarrek goizean joan beharko dute bertara. Gainontzeko udal zerbitzuek, liburutegiak eta kiroldegia orain arteko ordutegia izango dute, baina uztailean itxita egongo dira.

### Lau talde aurten Uda Kanpainan

Udalak hainbat kirol eta aisialdirako eskaintza egin ditu udarako, eta herritarrek hasi dira ikastaroetan. Lau talde sortu dira eta uztailean jardungo dute guztiek. Aisialdiko taldean 2 eta 5 urte arteko 15 ume daude bi begiraleekin. Multikiroletan, berriz, 14 neska-mutiko. Piraguis-moko ikastarorako bederatzilagunek eman dute izena, eta Oñatin, Usakon ibiliko dira. Nagusienez, 19 urtetik gorakoek, tai-chia egingo dute; Antzuola, Bergara eta Elgetako jendea dago. /I.A.



ELKARRIZKETA

KARMELE KORTA/GIZARTE LAGUNTZAILEA

*"Hirugarren adinekoek dituzten beharrei erantzutea da gure asmoa"*

**Z**entro balioanizduna prest dago, eta datorren barikuan, hilaren 16an, inauguratu ostean, irailetik aurrera hasiko da funtzionatzen. Zentroaren nondik norakoak azaldu dizkigu Karmele Korta Udaleko Gizarte laguntzaileak.

**Nola erabaki zenuten horrelako zentro bat ipintzea?**

Orain arte adinekoendako etxez etxeko zerbitzua eskaini izan dugu, egunean hiru ordukoa; edo bestela egoitza, 24 ordukoa, Bergaran. Arrasateko eguneko zentroa erabiltzeko aukera ere bazegoen, baina nahiko urruti egunero joateko. Herrian bertan horrelako zerbitzu bat eskaintzeko beharra ikusi dugu.

**Zein helburu ditu zentroak?**

Hirugarren adinaren inguruan herrian dauden beharrei

erantzutea orain artean eskaini ditugun beste zerbitzuekin batera. Gure asmoa da pertsonak ahalik eta denbora luzeen etxean edo inguruan edukitzea.

**Hirugarren adinekoek zein behar dituzte?**

Arreta berezia behar du adineko pertsona askok, eta zentroan arreta hori emango zaie. Batzuk etxetik kanpo bizi-tzeko alternatiba bila etorriko dira, eta beste batzuk zainketa behar dutelako eta etxekoek ezin dietelako lagundu.


*"Pertsonak ahalik eta denbora luzeen eduki nahi ditugu etxean edo inguruan"*

**Zein zerbitzu eskainiko dira?**

Eguneko zentroan goizetik arratsaldera egon ahal izango da. Bazkaria eta askaria emateaz gain, garbiketa pertsonala egingo zaie eta ekintzak egingo dira. Bestetik, etxebizitza babestuan ostatuaz gain jaten ere emango zaie. Bakoitzaren jarraipena ere egingo da bertan.

**Nori zuzenduta dago zentroa?**

Eguneko zentroa ezinduen-dako izango da eta etxebizitza babestua, euren kabuz moldatzeko gai direnendako. Oraingoz bi lagun azaldu dira prest eguneko zentrorako, baina irailean hasiko garenez, jende gehiago etorriko delakoan gaude. Eguneko zentroan zazpi lagunendako tokia dago eta etxebizitza babestuan hirurendako. Zentroari buruzko informazioa nahi dutenak udal-txerara etor daitezke niregana, bertan egoten naiz astelehen eta eguenetan.



AINZANE IRIZAR

ETB KANTXA

**Antolatzaileak pozik txapelketa amaituta**

**I.A.**  
ETB Kantxa lau t'erdiko pilota txapelketak aurtengoz eman du berea. Txapelketa amaituta Ozkarbi elkarteko antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. "Pilotariak maila oso ona erakutsi dute eta partidu asko nahiko parekatuak izan dira. Ikusle alde-tik ere pozik egoteko moduan gaude, azken partiduetan ez ezik txapelketa guztian zehar nahikoa jende etorri baita partiduetan ikustera. Antolatzaile garen alde-tik pozik egoteko arrazoiak badira", esan digu Juan Luis Uberak.

**FINALEAN PILOTALEKUA GAINEZKA**

Domekan jokatu ziren bi mailetako finalak, eta Udal Pilotalekua jendez gainezka izan zen. Kadete mailako finalean bi pilotariak ziren goizuetarrak, eta ikusleen artean Olaizola anaiak egon ziren herritarrak animatzen. Faboritua Apezetxea, iazko txapelduna, bazen ere, Narbartek jantzi zuen aurtengo txapela. Emaitza 16-22 izan zen.

Bestalde, 23 urtez azpikoan mailan Zapirainek Arretxeri irabazi zion, 15-22. Zapirainek ere zale asko eraman zituen Azkoititik Elgetara.



Txapelketako finalistak eta sariak banatu zituztenak, Elgetako pilotalekuan.

**BOLINAGA METALAK**

SALBADOR 7  
ELGETA 20690  
GIPUZKOA  
TEL: 943 76 80 64  
FAX: 943 76 83 01

**JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA**

Goibekokale



**Aperribay, s.l.**

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

# ZURE AUTOAREN PIEZAK PUNTU-PUNTUAN




## **Giauto**

Olabarrena z/g • 943 76 33 44/46 • Bergara • [www.giauto.es](http://www.giauto.es)



Berraondokua • 943 76 82 02 • Elgeta



San Lorentzo z/g • 943 76 13 84 • Bergara

## **MARKIEGI autoak**

Leizeaga 1 • 943 76 35 09 • Bergara



Santalaitz 6, 5. pabilioia • 943 76 36 09 • Bergara  
Ibaiondo bailara 17, 8. pabilioia • 943 69 16 16 • Irura



Amillaga 22 • 943 76 17 35 • Erakusketa: 943 76 51 35 • Bergara

## **Berria Garajea**

Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara

## **ION AUTOAK**

Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara



Lizarraga auzoa 8 • 943 78 70 77 • Antzuola

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko uztailearen 9 / 209. zenbakiaren gehigarri berezia



## JAIKAK04

IATORRIZKO ARGAZKIA: AINTZANE IRIZAR

**Doitasunezko  
trokelak**  
TROKELAY, S.A.

**Zerbitzuak**  
ELAY, S.L.

**ELAY Taldea**

**Ebaketa zehatza**  
ELAY INDUSTRIAL, S.A.  
CELAY, S.A. C.V.

**Gainmoldaketak  
eta tratamenduak**  
ELAY INDUSTRIAL, S.A.  
CELAY, S.A. C.V.

## ATREBENTZIAEZPADA/ Jaixetan zer gustatzen jatzu gehixen? Zer ekarriko ziñuke jaixetan?




**MARIÑE ETXANIZ**  
7 urte

Barrakak gustatzen jat gehixen, *La Rana*, batez be. Erromerixak be gustatzen jat. Barraka gehixago ekarriko nittuzke, eta zezenplazia jarriko neuke.



**ANDER ARANBURU**  
7 urte

Barrakak, tiruen postua, batez be. Postuetan jostailluak erostia be asko gustatzen jat; nik barraka gehixago eta hobiak ekarriko nittuzke, gutxi egoten dira eta.



**HARITZ KORTABARRIA**  
7 urte

Barrakak, *Rodeua*, batez be; baiña Antzuolara ez da etortzen. Bergarako jaixetan ibilli izan naiz *Rodeuan*. Jolasparkia be asko gustatzen jat.



**ANDER FERNANDEZ**  
7 urte

Barrakak gustatzen jat gehixen, batez be, *La Rana*. Jostailluak erostia be gustatzen jat kalia jar-tzen dittuen postuetan. Barraka pillia ekarriko neuke jaixetan.



**OLATZ ABASOLO**  
6 urte

Barrakak, *La Rana*-n ibiltzia, batez be. Puesto mordua egoten da eta han jostailluak erostia asko gustatzen jat. Erromerixak be asko gustatzen jat.

## ALKATEARENAGURRA/ Jose Anjel Zabalo



**H**eldu dira 2004ko jaiak ere. Urtebete Udalean pasa ondoren, ilusioz eta proiektuz beteta jarraitzen dugu Antzuolaren etorkizunerako.

Agurtu nahi nituzke egitarau hau eratzten parte hartu duten guztiak. Eurei esker, eguneroko lanak utzi eta jai baketsu eta zoriontsuak ospatu ahal izango ditugu.

Zoriondu nahi nuke Mairuaren Alardearen inguruan sortu den elkarte, alarde hau indartzeko eta herri kontzientzia sortzeko izango delakoan.

Azkenik, agurtu nahi nituzke egun hauetan gure artean egon ezin diren guztiak, eta jaiak bizitzeko aukera dugunok adiskidetasunean ospa ditzagula.

## FOTOZAHARRA

## Koadrilen egunean, mozorrotuta

**G**arai baten, koadrilen eguna izaten zen domekan. Batzuk mozorrotu egiten ziren, argazkikoak kasu. Zutik, ezkerretik hasita: Fernando Lete, Basili Ormazabal, Antton Valverde, Iñaki Elortza, Iñaki Arregi eta Julian Agirreurreta. Makurtuta: Agustin Arbulu, Jose Mari Laskurain, Jose Inazio Madariaga eta Jose Benito Manzisidor.



**MARTIN**  
okindegia

Langela: Kalebarren 4  
Saltokia: Herriko plaza  
943 76 64 35  
**ANTZUOLA**

Jai zoriontsuak  
antzuolar guztioi!



**DESKARGA**  
AUTOAK

Antigua auzoa z/g Antzuola.  
Tf. 943 76 62 75

**EAJ**  
**PNV**

EAJ-PNVk Antzuolarroi eta egun  
hauetan gure herrian izango  
zareten guztioi,  
Piedade jai zoriontsuak  
opa dizkizue!

**ANTZUOLAKO EAJ**

**SURPE**

Surpe berriro zabalik  
zatoz geurera

Herriko plaza 2, ANTZUOLA

**Ondo pasau jaixetan**

**Ainhoa**  
drogeria

**ONDO IBILI JAIXETAN!**

Kalebarren 13, ANTZUOLA  
657 72 39 82

EGITARAUA

# EGITARAUA

## Eguena, 15

**10:30-13:00** UMEENDAKO JOLASAK herriko plazan, udaleku irekietako begiraleekin.  
**13:30** UMEEN herri BAZKARIA, herriko plazan.  
**15:00-17:00** UMEENDAKO JOKOAK herriko plazan, begiraleekin.  
**18:00** Jaien hasiera iragartzeko TXUPINAZOA eta KANPAIAK.  
 Horren ondoren, txistularien KALEJIRA eta BURUHANDIAK.  
**19:30** SALBEA parrokiaren Antzuolako abesbatzak Arrueren Salbea kantatuko du.  
**20:15** Oinaringo umekin, IKURRIN DANTZA.  
 Antzuolako bandera eta Ikurrina jasotzea.  
 Horren ondoren, UDALBATZAREN AURRESKUA, Oinarinek lagunduta.  
**22:00** SOINTEK taldearekin KARAOKEA.  
**00:00** SUZKO ZEZENA herriko plazan.  
**00:30-01:30** SOINTEK taldearekin, DISKOTEKA.

## Egubakoitza, 16

**09:55** TXUPINAZOA.  
**10:00** Txistulari taldearekin, GOIZ-ERESIA.  
**11:00-13:30** UMEENDAKO JOLASPARKEA herriko plazan.  
**11:30** MEZA nagusia.

**12:30** BERTSO SAIOA Zurrategin, Amets ARZALLUS eta Sustrai COLINA bertsolariekin.  
 Erretiratuek salda beroa eskainiko dute, nahi duen guztiarendako.  
**15:30-18:00** UMEEN JOLASPARKEA herriko plazan.  
**19:00-20:00** ZEZEN TXIKIAK ETA PONEYAK herriko plazan.  
**20:00** PRESOEN aldeko ekitaldia herriko plazan: senideei OMENALDIA egingo zaie.  
 Horren ondoren, sagardo eta pintxo dastaketa egingo dute.  
**23:00-00:30** ALAZAN taldearekin DANTZALDIA herriko plazan.  
**23:00** ROCK KONTZERTUA Zurrategin, Gazte Asanbladak antolatuta.

## Zapatua, 17

**09:55** TXUPINAZOA.  
**10:00** Txistulari taldearekin GOIZ-ERESIA.  
**11:30** Bergarako Udal MUSIKA BANDAREN kalejira.  
**11:30-13:30** EUSKAL KANTU ETA JOLASAK herriko plazan, Bergarako Jardun euskara elkartearen eskutik.  
**12:30** Bergarako Udal MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA, Zurrategin.  
**18:00** Mairuaren ALARDEA.  
**19:00** Oinarin taldearen DANTZA SAIOA.



UMEENDAKO EKITALDI UGARI EGONGO DA.



ALARDEA, ZAPATU ARRATSALDEAN.

**21:00-22:00** JOSELU ANAIK taldearekin, DANTZALDIA.  
**21:30** HERRI AFARIA, Txosna batzordeak antolatuta.  
**23:00-02:00** Joselu Anaiak taldearekin, DANTZALDIA.  
**00:00** SUZKO ZEZENA, herriko plazan.

## Domeka, 18

**11:00-13:00** AEROMODELISMO erakustaldia, Helimodel taldearen eskutik.  
 12:30 arte hainbat auto gidatzeko aukera egongo da plazan. 12:30ean hasita, berriz, helikoptero eta hegazkinek erakustaldia egingo dute, Sagastiko zelaian.  
**12:30** GASTRONOMIA DASTAKETA herriko plazan. TREKUTZ elkarteak arduratuko dira dena gertatzeaz eta zerbitzatzeaz.  
**12:30** Herrian nabarmendu diren KIROLARIEI OMENALDIA, herriko plazan.  
**17:00** PILOTA PARTIDUAK, Udal Pilotalekuan: Berraondo-Urberuaga/ Baleztana-Auxkin; Goñi II.a-Elkoro/ Gonzalez-Apeztegia.  
**19:00-20:15** TRAPU ZAHARRA taldearekin, kale ANTZERKIA: *Elvis, joan hadi* antzezlan.  
**20:30-22:00 eta 23:00-01:00** NEKIN taldearekin DANTZALDIA.



SUKALDEKO HALTZARIAK  
**Harizki**



- Sukalderako eta bainurako altzariak
- Altzari rustikoetan espazializatuak

Jai zoriontsuak guztioi!

Zurrategi plaza 4 behea • Tel./Faxa: 943 78 71 80



Ondo ibili jaietan!

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBArekin bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

JOLASEAN

# Aspaldiko jolas eta kantuak ekarriko ditu Jardunek

Soka-saltoan, txapa jolasean eta kantuekin lagunartean aritzeko aukera izango dute neska-mutikoeak

Herriko plazan,  
11:30ean

Zapatua,  
uztailak 17

EDU MENDIBIL

Aspaldiko kantu eta jolasekin ondo pasatzeko aukera izango dute neska-mutikoeak zapatuan. Makina elektronikoekin ez ezik, badira ondo pasatzeko beste hainbat modu ere.

**B**ergarako Jardun elkartearen eskutik, neska-mutikoen jolasak eta kantuak izango dira zapatuan, hilaren 17an, Herriko Plazan, 11:30etik 13:30era bitartean.

Jardunek orain dela lau urte jarri zuen martxan Jolasleku Ibiltaria izeneko egitasmoa, Bergaran. Nekane Gabilondo Jarduneko kidearen arabera, galtzeko arriskuan ziren jolas eta kantuak berreskuratzea zen helburu nagusia. Umeak, gurasoak eta zaintzailak elkartzen diren gunetan egin izan dituzte Jolasleku Ibiltariako saioak, eta erantzun bikaina jaso dute: "Gaur egungo umeek ez dituzte ezagutzen lehengo



Argazkian, Jarduneko begiraleak neska-mutikoeekin jolasean.

jolas eta kantuak, eta altxor hori oso baliotsua da. Hain zuzen ere, tresna gutxiarekin eta imajinarioarekin primeran pasatzeko aukera dagoela erakutsi nahi diegu 6-12 urte bitarteko

**Galtzeko arriskuan ziren kantu eta jolasak berreskuratzeke helburuarekin. Jolasleku Ibiltaria abian jarri zuen Jardunek**

neska-mutikoei. Makina elektronikoekin eta horrelakoeekin ez ezik, soka edo txaparekin lagunartean jolasteko aukera ere bada. Betiko jolasak dira eta oraindik ere oso baliaga-

rriak dira. Gainera, gorputzeko hainbat atal lantzeko ere primeran datoz", adierazi digu Nekane.

Besteak beste, datorren zapatuan herriko plazara hurbiltzen direnak aukera izango dute soka-saltoan, esku jolasetan, tortoloxetan, txapetan, lerroko jolasetan eta zapiarekin aritzeko. Era berean, kantu zaharrak gogora ekarriko dituzte: *Zubirik zubiri*, *Domino abanti*, *Jose Martin*, *Kale frantses baten* eta *Xalala*, besteak beste.

#### HELDUEI ERE GONBIDAPENA

Askotan gurasoek ere erdi ahaztuta dituzten jolasak eta kantuak dira Jardunek ekarriko dituenak. Beraz, beraiendako ere aukera polita izango da zapatukoa, seme-alabekin jolasean ibiltzeko parada izango dute eta. Gaztetxoei eta helduei ere gonbidapena egiten die antolatzaileek.

Bost begirale izango dira zapatuko saioan: Lorea Zurututza, Amaia Ortiz de Urbina, Itziar Jauregi, Sherezade Moreno eta Idoia Retegi.



**Antzuolako Udalak jai zoriontsuak opa dizkizue!**

Bereziki zapatu arratsaldeko seietan egingo den Mairuaren alardera gonbidatu nahi zaituztegu. Zatozte!



**Antzuolako udala**  
www.antzuola.com

Jose Luis  
Zabalo

**zabalo**  
IGELTSEKOTZA

Ondo pasau  
jaixak!

ZAHAR BERRITZEAK: Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilatuak **Eta orain... GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Kalegoi 9 -1a. • ANTZUOLA • Tel. Faxe: 943 76 60 89



KIROLAK

# Herriko kirolari onenei sariak banatuko dizkiete

## Udalak ohitura hori berreskuratu nahi izan du, kirolariei urtean zehar egindako lana eskertzeko

AINZANE IRIZAR

**Kirola eta gastronomia uztartuko dituzte domeka eguerdian. Kirolariei omenaldia egiten dieten bitartean, gastronomia dastaketa izango dugu. Trekutz elkar-tearen eskutik.**

**D**omeka eguerdiko giroa alaitzeko, beste ekimen bati ekin dio aurten Jai batzordeak: gastronomia dastaketa, hain zuzen ere, egingo dute. Aurten, Trekutz elkartekoak arduratu dira jatekoa eta edatekoa prestatzeaz eta zerbitzatzaz. 12:30ean hasita izango da dastaketa.

Ekimen horren helburua da, alde batetik, herriko elkarteen parte-hartzea

bultzatzea, eta bestetik, jendea elkarrekin egoteko aukera ematea eta domeka eguerdiko giroa alaitzea.

Ordu berean eta plazan bertan, herriko kirolariei omenaldia egingo diete.

**HAMAIKA SARI EMANGO DITUZTE** Herriko hamaika kirolari eta kirol talde, hain zuzen ere, omenduko dituzte. Azkeneko urteotan galdua zegoen ohitura berreskuratu eta urtean zehar egindako lana eskertu nahi izan die Udalak herriko kirolariei.

Gorka Garcia futbol jokalaria jasoko du sarietako bat; iazko denboraldian Osasuna taldean jokatu zuen, Kordobak lagata. Orain, berriz dihardu Kordoban jokatzeko. Emango dioten sariarekin, herriaren izena zabaldu izana

eskertu nahi izan dio Udalak. Futbolekin, beste bi sari ere emango dituzte: gazte mailako taldeari bata, eta eskola kiroleko alebin mailako taldeari bestea.

Gimnasia erritmikoari dagokionez, Ariznoa taldean diharduten Antzuolako gimnasta guztiek jasoko dute saria, denboraldi bikaina egin dute eta. Iñaki Toledok eta Alejandro Muxikak, berriz, ehizan lortutako emaitzengatik jasoko dute saria.

Pilotan, bestalde, kade-te mailako pilotariei emango diete saria; Gurutz Larrea txirrindularia eta Julen Garitano eta Xabier Azkarate korrikalariak ere sarituko dituzte. Palan, azkenik, Gorka Iturbek, Iker Mansok, Gotzon Zabalok eta Balendin Zabalok jasoko dute saria.



Gazte mailako futbol taldeak Gipuzkoako kopa irabazi zuten.

ARTXBOA



Gimnasia erritmikoko neskek denboraldi ezin hobea egin dute.

ARTXBOA



# MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia

Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

**ERREKA®**

Ate eta pertsianak zabaltzeko automatismoen fabrikazioa

Ibarreta z/g 20577

Antzuola

Tel. + 34 943 78 60 09

Faxa + 34 943 78 70 34

<http://www.matz-erreka.com>

**ELKARRIZKETA** JOSE LUIS KORTABARRIA ALARDEAREN ELKARTEKO PRESIDENTEA

# “Alardearen inguruko giroa berpizten saiatu behar dugu”

AINTZANE IRIZAR

**Maiatzean aurkeztu zuten Mairuaren Alardearen Elkarte. Jose Luis Kortabarría da elkartearen presidentea. Urtetan egin du berak kapitainaren papera, eta bere ahotik ezagutu dugu askok Antzuolaren historiaren zati garrantzitsu bat.**

**Zer da Alardea Jose Luis Kortabarriarendako?**

Mutiko-mutikotatik hasi nintzen alardea ikusten, eta nire barruan horrelako grina bat sortu zuen. Gainera, urtetan egin nuen kapitainaren papera. Niretako ekitaldi oso berezia da, herriaren historiarekin lotutakoa; nire nahia da urtetako ohitura horrek jarraitzea.

**Elkarte bat sortu berri duzue alardea bultzatzeko. Horrek esan nahi du alardea indarra galduta dagoela?**

Alardeak beti izan ditu gorabeherak; urte batzuetan jendea topatu ezinda ibili gara; hurrengo baten, berriz, jende larregi... Orain elkarte hau sortzeak ez du

esan nahi alardea momentu txarrean dagoenik; baina, egia esan, alardearen inguruko giroa hozten joateko arriskua dago. Horregatik, alardearen indarrari eusten saiatu behar dugu, alardearen inguruko giroa berpizten.

Orain arte herriko Udalak arduratu izan da alardea antolatzeaz, baina egiten zen bakarra zen jaiak inguratzen zirenean alardea antolatu, ondoren balorazioa egin, eta kito. Hain zuzen ere, gure helburua da alardearen antolakuntza Udaletik atera, elkarte sortu eta urtean zehar iritziak jaso, denon artean eztabaiatu, aldaketa posibleak aztertu eta urte osoan piz-

**“Alardeak beti izan ditu gorabeherak; elkarte orain sortzeak ez du esan nahi alardea momentu txarrean dagoenik”**


tuta edukitzea alardearen inguruko lana.

**Elkarteak sortu zenute netik hona jende berririk elkartu zaizue?**

Bai; elkarte sortzearekin eta erakusketa antolatzearekin zelanbaiteko giroa sortu da. Jendeak oso harrera egin dio erakusketari. Hamar bat lagun etorri zaizkigu harrezkero, elkartearen kide izateko, eta oso pozik gaude; guztira, hogeita bost bat lagunek osatuko dugu elkarte. Jendeak konpromisoa hartzeko beldurra dauka, baina, egia esan, elkarte honek ez digu lan handirik eman. Urtean sei bat batzar egingo ditugu, besterik ez. **Aurrera begira ze beste ekimen egingo duzue?**

Oraingoan, jaiak gainean ditugu eta alardea ere bai. Jaiaren ondoren, balorazioa egingo dugu, eta gure hurrengo zeregina izango da elkartearen aurrekontua prestatzea. Elkartearendako logotipo bat ere aukeratu beharko dugu. **Zer esango zenioke kanpoko jendeari jaietara etor dadin?**

Animatuko nituzke etortzera; batez ere, alardea ikustea merezi duela, oso ekitaldi polita dela.



**Jai zoriontsuak igaro ditzazuela antzuolar guztiok eta bertaratzen zaretenok!**



## Gabilondo-Arregi

h a r a t e g i a

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90



# Ana Etxeberria

**Kirol masajista  
Osteopata  
Akupuntura  
Esku terapeuta  
Linfodrenagista  
Kiropraktikoa**

Errekalde 6 behea Tel.: 943 76 60 13 ANTZUOLA

Jai zoriontsuak guztioi!

**TXOSNAK**

# Beste kokapen bat izango dute txosnek: Zurrategin egongo dira

Bi txosna egongo dira: presoen lagunena bata, eta Gazte Asanbladarena bestea

AINZANE IRIZAR

Bi txosna jarriko dituzte aurtengo jaietan ere; kokapena, baina, beste bat izango dute: Zurrategin egongo dira. Egitarau zabala antolatu du Txosna batzordeak.

Zurrategik beste itxura bat izango du eguenetik domekara. Aurten, hantxe jarriko dituzte txosnak. Orain dela bi urtera arte Eguzki auzoan egon dira txosnak urtetan. Iaz, Udal Pilotalekuaren ondoan jarri zituzten, frontoi txikian, hain zuzen ere.

Txosna batzordeko kideen nahia, baina, Zurrategin jartzea zen, eta aurten, Udalak horretarako baimena eman die.

**EKITALDI UGARI ANTOLATU DUTE**  
Bi taldek osatzen dute aurtengo Txosna batzordea: Presoen Lagunek eta Gazte Asanbladak, hain justu. Bi taldeon artean, egitarau propioa antolatu dute jai-



Aurten ez da herri bazkaririk egongo domekan; zapatuan, baina, herri afaria egongo da Txosna batzordeak antolatuta.

tarako. Eguenean, 19:00etan zabalduko dituzte txosnak. Egubakoitzerako, berriz, presoen aldeko ekitaldia antolatu dute; 20:00etan izango da hori, plazan. Gauean, berriz, 23:00etan,

rock kontzertua egongo da Zurrategin.

Zapatuan ere ekitaldi ugari egongo da; alardearen ondoren, herri kirolak egongo dira: Idiazabal, Urretxu, Etxarri-Aranatz

eta Antzuolako gazte asanbladetak kideek parte hartuko dute. 21:30ean, berriz, herri afaria izango dugu. Txartelak herriko tabernetan daude salgai, 10 eurotan. Bestalde, aurten pre-

soen lagunek herri bazkaririk antolatu ez dutenez, herri afaria izango dugu zapatuan, Txosna batzordeak antolatuta. Afalostean dantzarako aukera izango dugu, DJ Bull-ekin.

## Txosna batzordearen egitaraua

EGUENA, 15

19:00

Txosnen irekiera.

EGUBAKOITZA, 16

20:00

Presoen aldeko ekitaldia herriko plazan. Ondoren, sagardo eta pintxo dastaketa.

23:00

Rock kontzertua

Zurrategin.

ZAPATUA, 17

19:30

Gazte asanbladen arteko herri kirolak. Idiazabal, Urretxu, Etxarri-Aranatz eta Antzuola.

21:30

Herri afaria txosnetan.

Ondoren, DJ Bull-en emanaldia.

DOMEKA, 18

01:00

Edatekoa doan. Zabalik dauden botilak gastatzeko bakarrik.

**HIRU**  
AROSZTEGIA

Ondo pasau jaixak!

ATEAK • LEHIOAK • ZORUAK • HORMA ARMAIRUAK

Antigua auzoa 8. 20577 ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 59 eta 678 61 50 28/27

**TXOMIN GARAJEA**

ZORIONAK  
GUZTIOI!



Mekanika orokorra

Tailer profesionala

IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. Antzuola. Tel. 943 78 70 77

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

# GOIZPER KOOP. ELK.

## MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUAK.

## GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
  - PNEUMATIKOAK
  - HIDRAULIKOAK
  - MEKANIKOAK
  - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK

ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)  
211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA  
TEL.: 943 786000  
FAXA: 943 766008 - 943 787095  
E-MAILA: goizper@goizper.com  
Web gunea: www.goizper.com



ERA GUZTIETAKO MARGOLANAK-FATXADEN GARBIKETA  
943 766407 616 277999 Antzuola